

KOIUNTURAZ

80. zkia.

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera	13
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	19
Lan merkatua.....	24
Prezioak, kostuak eta soldatak	29
Prezioak	30
Lan kostuak eta soldatak	33
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	39
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak	51

LABURPENA

2012ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak barne produktu gordinaren jaitsiera areagotu zuen urte arteko tasan $\%-0,9$ an kokatu arte, azken hamar hiruhilekoetako daturik txarrena baita. Emaita hori aurreko epealdikoa baino sei hamarren negatiboagoa da eta barne eskariaren osagai guztien muturreko ahultasunaren ondorioz iritsi da. Zorionez, kanpo arloak ekarpen positibo garrantzitsua egin zion BPGari, barne merkatuaren bizitasun eza leunduz, nahiz eta inguruneko ekonomietan ere zailtasunak hautematen diren jarduera bultzatzeko. Hain zuzen ere, Espainiako ekonomiak $\%1,3$ ko jaitsiera izan zuen urte arteko tasan eta Euroguneak, berriz, $\%0,5$ gutxitu zuen bere BPGa.

EAEko ekonomia. BPGaren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Beste hiruhileko batez, munduko ekonomiak bere erritmoa moteldu zuen eta $\%2,9$ baino ez zen hazi urte arteko tasan, NDFk atzeraldikotzat jotzen ohi zuen balioa baita. Azaleratzen ari diren herrialdeek emaitza nabarmenagoak lortzen jarraitzen duten arren, berauek dira ekonomia globalaren erritmo galeraren erantzuleak. Zehazkiago adierazita, garapen bidean dauden lau herrialde nagusiek (Txina, India, Brasil eta Errusia) ia erdira murriztu dute beren

hazkunde tasa azken bi urtean, 2010eko hasieran lortu zuten %10etik gaur egungo %5,6ra. Txinaren kasuan, BPGa %7,6 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko hiru hilekoetan baino puntu erdi bat gutxiago, Indiak puntu oso bat galdu zuen bitartean, urte arteko tasa %4,2an utziz. Brasili dagokionez, hazkunde tasa %0,5era mugatu da.

Munduko ekonomia. BPGaren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa eta indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabilia.

Herrialde garatuei dagokienez, hazkundera tasa apaletan egonkortzen ari dela hautematen da. Izan ere, zazpi herrialde garatuenean osatzen duten taldea %1,6 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Azpimarratzekoak dira Japoniako (%3,3) eta AEBetako (%2,1) gehikuntza tasa sendoak, Europar Batasuneko jaitsieraren aldean (%-0,3). Eremu horren barruan, Italiaren beherakada bizia (%-2,5) nabarmendu behar da, ondoren Espainiaren eta Erresuma Batuen jaitsierak (%-1,3 eta %-0,5, hurrenez hurren) kokatu zirelarik. Frantziak (%0,3) eta Alemaniak (%1,0), berriz, gehikuntza tasa apalak lortu zituzten.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2011		2012	
			III	IV	I	II
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,4	0,7	0,1	-0,3
- EAE	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9
- Espainia	-0,3	0,4	0,6	0,0	-0,6	-1,3
- Alemania	4,2	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0
- Frantzia	1,7	1,7	1,5	1,2	0,4	0,3
- Italia	1,8	0,4	0,4	-0,5	-1,5	-2,6
- Erresuma Batua	1,8	0,9	0,6	0,7	-0,1	-0,5
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,4	1,8	1,6	2,0	2,4	2,1
Japonia	4,5	-0,8	-0,7	-0,6	2,8	3,3
Txina	10,4	9,2	9,7	9,1	8,1	7,6
India	10,8	7,1	7,4	6,2	5,3	4,2
Errusia	4,3	4,3	5,3	4,8	4,9	4,0
Brasil	7,5	2,7	2,2	1,4	0,7	0,5

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Europa kanpo arloaz baliatzen ari da barne arazo ugari aurre egiteko. Izan ere, herrialde horietako ezaugarri nagusiak inbertsioaren murrizketa areagotzea eta familien kontsumoaren emaitza negatiboak izan dira, kanpo arloak hazkundera eginiko puntu bateko baino zertxobait handiagoko ekarpenak neurri batean konpentsatuta. Eurogunearekiko mesfidantzak txanpon horren balioa jaitea ekarri du eta horrek esportazioak areagotu ditu. Hain zuzen ere, euroaren kotizazioa urte hasierako hilekoetan 1,32 dolar izatetik abuztuko 1,24 dolarrera igaro da, azken urtebetean balioaren %13 galduz. Beheranzko bilakaera horrek petrolioaren kostuan ere izan du eragin handia, zeren eta dolarretan neurtuta %2,8 baino garestitu ez den arren, Europako diruan neurtuta %18,9 igo baitzuen prezioa, lehengai horren serie historikoan inoiz jaso diren maila altuenetatik hurbil.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Moteltze orokorreko eta Europako BPGaren jaitsierako testuinguru orokor horretan, EAEko ekonomiak %0,9 gutxitu zuen bere ekoizpena bigarren hiruhilekoan, urte hasieran baino sei hamarren gehiago. Halaber, hiruhileko arteko tasa %-0,4 izan zen eta dagoeneko hiru hiruhileko eman ditu jarduera murrizten. European gertatzen ari den bezala, bizitasunaren galera barne merkatuan gauzatu da, magnitude behinenak balio negatibotan daudelako. Kanpo arloak, ordea, ekarpen positibo garrantzitsua egin zion hazkundeari, puntu bat eta erdi ingurukoa, azken epealdietako handienetakoa baita.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012	
			III	IV	I	II
BPG erreala	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9
Enplegua	-0,9	-0,6	-0,7	-1,3	-1,7	-2,3
Ekoizkortasun irabaziak	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4	1,4
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,6	11,2	12,1	11,9
Konsumoko prezioen indizea	1,7	3,1	2,9	2,7	2,0	1,9

Iturria: Eustat eta INE.

Barne eskariaren barruan, kontsumo pribatuaren berrerortzea (%-1,4) azpimarratu behar da, bi urtez etengabe hazi eta gero. Langabezia tasa altua, kontsumitzaileek ekonomiaren etorkizunaz duten ikuspegi ezkorra eta kontsumorako kreditu bat lortzeko orduan dauden zailtasunak dira, besteak beste, familiek kontsumoari eustea eragozten duten arrazoiak. Irailean indarrean sartu berri den BEZaren igoerak eragina izango du familien erosketetan. Hori dela eta, agregatu hori ez da epe laburrean suspertuko. Kontsumo publikoak, berriz, beherakada garrantzitsu bat izan zuen berriro bigarren hiruhilekoan, urte hasierako gorakada txikiaren ondoren. Defizit publikoaren helburua betetze aldera administrazioaren gastuak murrizteko beharrak aldagai horretan kontuan hartzen diren sailak gutxitzea ekarri du. Azkenik, kapitaleko eraketa gordina berriro izan zen gehien murriztu zena (%-4,6), bai eraikuntzaren jarduera ezak bai ekoizteko ekipamendua, salmenta gutxiegiako testuinguru batean, ordezkatzeko behar ezak lastatuta.

Eskaintzaren ikuspegitik, lehen arloak bakarrik areagotu zuen bere balio erantsia (%12,6), baina sektore horren tamaina txikia eta izaten dituen gehiegizko gorabeherak oztupoak dira pentsatzeko arlo horren joera positibo batek gainontzeko sektoreak suspertzeko balioko duenik. Industriak, berriz, jaitsiera bizkortu zuen balio erantsiaren %2,6 galdu arte, industria produkzioaren hilekako datuek iragarria zuten bezala. Eraikuntzak ez du lortu bere narriadura luzea galgatzeko eta beste beherakada bat jaso zuen, oraingoan %6,2koa, higiezinaren prezioak merkatu diren arren etxegintza suspertzen ez delako eta obra publikoa administrazioaren murrizketen baldintzapean dagoelako. Azkenik, zerbitzuek ez zuten inolako aldakuntzarik izan beren balio erantsian, merkaturatzen ez diren jardueren bultzada txiki bati esker, lau hamarren hazi baitziren. Aitzitik, merkaturako zerbitzuek jaitsiera arin bat (%-0,1) izan zuten, familien eta enpresen geldotasunaren ondorioz.

Ekoizpenaren beherakadarekin batera enpleguaren beste murrizketa bat iritsi zen, oraingoan %2,3koa. Tasa horrek 22.400era igo du azken hamabi hilekoetan galdu diren lanpostuen kopurua. Enplegua jaitsi zen arren, langabezia tasa zertxobait gutxitu zen aurreko datuarekiko, neurri batean lan merkatuan parte hartzen duen biztanleria murriztu zelako. Ekoizpenaren eta enpleguaren konbinaketak %1,4an kokatzen du produktibitatearen irabazia, aurreko hiruhilekoetan lortutako zenbakietatik hurbil. Azkenik, prezioek bilakaera neurritsua izan zuten eta bigarren hiruhilekoan KPI indizea %1,9an kokatu zen, baina azken hilekoetan erregaien gorakadak adierazle hori %2,4an kokatu zuen abuztuan. Hala ere, azpiko inflazioak maila apalean jarraitzen du egonkor (ekainetik %1,3an dago).

Datozen hiruhilekoei begira, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenak iradokitzen du oraindik ez dela inflexio gunea gauzatu BPGaren jaitsieran eta hurrengo hiruhilekoetan ekoizpenaren galera areagotuko dela. Hori horrela izanda, hirugarren hiruhilekoan urte arteko beherakada %1,6 izango dela aurreikusten da, bigarren hiruhilekoko baino zazpi hamarren handiagoa, eta urte amaieran jaitsiera %2tik gorakoa izan daitekeela.

2013. urtea arte itxaron beharko da horren negatiboak izango ez diren balioak ezagutzeko, EAEko ekonomia suspertzeko bidean jarriko dutenak. Hala ere, datorren urteko balantzeari ere negatiboak izango dela espero da.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2012RAKO ETA 2013RAKO

Urte arteko aldakuntza tasak								
	2012		2012	2013				2013
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG erreala	-1,6	-2,1	-1,2	-1,9	-1,4	-0,4	0,5	-0,8
BPGren deflatoarea	1,3	1,5	1,3	1,5	1,4	1,4	1,3	1,4
Enplegua	-2,4	-2,5	-2,3	-2,4	-1,9	-1,5	-0,4	-1,6
Langabezia tasa	12,6	12,6	12,3	12,8	12,9	13,0	13,0	12,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Aldagai nagusiek bigarren hiruhilabetea izan zutena bezalako portaera erakutsiko dute ondorengoetan ere, hots, barne eskariak ahultasuneko joera garbia erakusten jarraituko du datozen sei hiruhilekoetan, urratsez urrats beherakadak leunduko badira ere. Aitzitik, kanpo arloak ekarpen garrantzitsuak egingo dizkio hazkunderari. Bai aurten bai datorren urtean, kontsumoak eta kapital eraketa gordinak beherakada handiak jasoko dituzte. Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako arlo guztiek balio erantsia murriztuko dute, batez ere eraikuntzak, baina industriak ere tamaina handiko balio negatiboak ezagutuko ditu. 2013ko amaieran bakarrik lortuko da urte arteko gehikuntza positibo bat, aurreikuspen hau betetzen bada.

Enplegu galerak tamaina handikoak izango dira berriro eta 22.000 pertsonarengan 2012an eta 15.000rengan 2013an izango dute eragina. Lanpostu horien galera, neurri batean, lan merkatutik irteten diren langileei esker leunduko da eta, horren ondorioz, langabezia tasa ez da aurreko atzeraldietan (laurogeietan eta laurogeita hamarretako hasieran) beste igoko. Zehazkiago, langabezia tasa 2013ko bigarren erdialdean %13aren inguruan egonkortuko dela espero da. Hala ere, oso zaila da biztanleria aktiboak eta ez-aktiboak lanpostuen urritasunari emango dioten erantzuna aurreikustea.

BEZa igo den arren eta euroak balioa galdu duen arren, prezioek igoera neurritsuak ezagutuko dituzte eta BPGaren deflatoarea ez da %1,5 baino gehiago haziko aurreikusi den epealdi osoan zehar.


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2012ko bigarren hiruhilekoan zehar, munduko ekonomiak indarra galdu zuen berriro eta %2,9 inguru hazi zen, gutxi gorabehera aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hazkundearen moteltze hori ekonomia aurreratuetan eta, batez ere, garapen bidean daudenetan hauteman zen. Hala ere, azken herrialde horietako gehikuntza tasa sendoa da oraindik, herrialde garatuetan lortutako emaitzekin alderatzen bada.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Kanpo ingurunearen ahultasunak, bereziki Europarenak, eta herrialde horietan ezarri ziren moneta politika gogorragoen eragin atzeratuek azaleratzen ari diren Asiako ekonomien moteltzea ekarri zuten. Hala eta guztiz ere, Txina edo India bezalako herrialdeetan barne eskariak eusteko ahalmena erakutsi zuen, kanpo eskariaren ahultasuna, neurri batean, konpentsatuz. Hain zuzen ere, Txinako BPGaren hazkundera %7,6ra mugatu zen, aurtengo lehen hiruhilekoan %8,1 hazi zen bitartean. Indian, berriz, hazkundera ahuldu egin zen laugarren hiruhilekoz jarraian eta 2011ko bigarren hiruhilekoan %8,8 izatetik 2012ko hiruhileko berean %4,2 izatera igaro da. Inflazioari dagokionez, bigarren hiruhilekoan prezioek beheranzko joera erakutsi bazuten ere, udako hilekoetan joera osorik aldatu zen. Izan ere, abuztuan Txinako KPI %2,0ra igo zen, uztailean %1,8ra jaitsi eta gero, azken 30 hilekoko tasarik txikiena zelarik. Azkenik, Indian, bertako KPI apirileko %10,2tik uztaileko %9,8ra moteldu eta gero, abuztuan bizkor egin zuen berriro gora eta %10,3an kokatu zen, azken hiru urteko mailarik gorena baita.

Japoniako ekonomiak lortu zuen gorakada sendoak eta estatubatuar ekonomiak erakutsi duen bizitasunak Europako ekonomiak nozitu zuen beherakada konpentsatu zuten. Beraz, ELGE erakundera, oro har, %1,6 hazi zen, 2012ko lehen hiruhilekoan lortutako balioa baino hamarren bat gutxiago. Zehazkiago adierazita, AEBek nahiko bilakaera egonkorra erakutsi zuten eta bertako BPG %2,1 areagotu zuten, aurtengo lehen hiru hilekoetan baino hiru hamarren gutxiago. Kontsumo pribatuaren sendotasunak eta inbertsioaren indarrak, azken hau %7 baino gehiago hazi baitzen, kontsumo publikoaren eta, neurri txikiagoan, kanpo arloaren beste jaitsiera bat konpentsatu zuten. Lan merkatuak estatubatuar ekonomiaren irudi fidagarria eman zuen. Hain zuzen, abuztuan 201.000 lanpostu garbi sortu ziren. Bolumen horrek %8,1ean kokatu zuen langabezia tasa. Azkenik, inflazioak maila apaletan jarraitu zuen eta %1,7an amaitu zuen abuztuan, 2011ko irailean jaso zuen %4,7 hartatik oso urrun, nahiz eta nolabaiteko gorakada izan zuen uztailean lortutako balio minimotik (%1,4).

Japonia ekonomia aurreratu dinamikoen artean nabarmendu zen, hazkunde orekatuko eredu batekin, bi eskariak BPGaren hazkundeari ekarpenak egiten dizkiotelako. Hain zuzen ere, kontsumitzaileen gastua eta inbertsioa izan ziren hazkundearen oinarri nagusiak, baina esportazioen bultzadak ere hamarrenen bat ekarri zion BPGari. Hori horrela, Japoniako ekonomiak bere susperraldia baieztatu zuen eta goranzko hazkundeko bigarren hiruhilekoa kateatu zuen, ekonomia jarduera %3,3 areagotuta, hots, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino puntu erdi bat gehiago. Hala ere, barne eskariaren hobekuntza ez da behar beste igaro prezioen bilakaerara eta aurtengo lehen hilekoetan KPIaren tasa positiboak lortu baziren ere, ekainetik aurrera inflazioak behera egin zuen berriro, abuztuan %-0,5ean kokatu arte. Azkenik, langabezia tasak nahiko egonkor jarraitu zuen, beheranzko joera arin batekin, eta abuztuan %4,1ean amaitu zuen.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2010	2011	2011			2012			
			II	III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
BPG erreala									
AEB	2,4	1,8	1,9	1,6	2,0	2,4	2,1	---	---
Japonia	4,5	-0,8	-1,7	-0,7	-0,6	2,8	3,3	---	---
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,7	1,4	0,7	0,1	-0,3	---	---
- Alemania	4,2	3,0	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0	---	---
- Frantzia	1,7	1,7	1,7	1,5	1,2	0,4	0,3	---	---
- Erresuma Batua	1,8	0,8	0,7	0,6	0,7	-0,1	-0,5	---	---
Inflazioa									
AEB	2,4	3,3	3,4	3,8	3,3	2,8	1,8	1,4	1,7
Japonia	-0,7	-0,3	-0,4	0,1	-0,3	0,3	0,2	-0,4	-0,5
Europar Batasuna 27	2,1	3,1	3,2	3,1	3,2	2,9	2,6	2,5	2,7
- Alemania	1,2	2,5	2,5	2,7	2,7	2,4	2,1	1,9	2,2
- Frantzia	1,7	2,3	2,2	2,3	2,6	2,6	2,3	2,2	2,4
- Erresuma Batua	3,3	4,5	4,4	4,7	4,7	3,5	2,7	2,6	2,5
Langabezia tasa									
AEB	9,6	8,9	9,0	9,1	8,7	8,3	8,2	8,3	8,1
Japonia	5,1	4,6	4,6	4,4	4,5	4,6	4,4	4,3	4,1
Europar Batasuna 27	9,7	9,7	9,5	9,7	10,0	10,2	10,4	10,5	10,5
- Alemania	7,1	5,9	6,0	5,8	5,7	5,6	5,5	5,5	5,5
- Frantzia	9,8	9,7	9,6	9,6	9,8	10,0	10,3	10,6	10,6
- Erresuma Batua	7,8	8,0	7,9	8,3	8,3	8,2	7,9	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasuna, berriz, kate maila ahula izan zen ekonomia aurreratuen multzoan. Periferiako herrialdeetako zor subiranoaren krisitik eratorri diren finantza tentsioek eta krisi horren irtenbidearen inguruan zabaldu den ziurgabetasunak ekonomia eragileen konfiantza lastatu zuten, eta berarekin batera BPGa bera, %-0,3ra gutxitu baitzen, 2009an, atzeraldia amaitu zenetik inoiz jaso den emaitzarik txarreana baita. Eurogunearen bilakaera are okerragoa izan zen. Espainiako eta Italiako zor subiranoaren gainkostuaren hazkundeak eta enpresek eta familiak bizi duten zorgabetzeak inbertsioaren uzkurdua handiago bat eta kontsumo pribatuaren beste beherakada bat eragin zituzten, BPGaren bilakaera %-0,5era eramanez. Berriro ere, narriadura are biziagoa izan zen periferiako herrialdeetan. Esate baterako, Greziak %6,2 egin zuen behera, Portugalek %3,3, Italiak %2,5 eta Txiprek %2,4. Datu horiek berriro atzeraldian murgilduta daudela erakusten dute.

Erdialdeko herrialdeek izan zuten bilakaera hobea izan zen. Alemaniako BPGaren gehikuntza %1,0ra iritsi zen eta Europako hazkundearen bultzagile nagusiaren papera bereganatu zuen berriro, baina azken hilabeteetako hazkunde eredia aldatu zuen. Izan ere, aurtengo bigarren hiruhilekoan esportazioen sendotasunak bakarrik bultzatu zuen jarduera, inbertsioaren beherakada garrantzitsuak kontsumo pribatuaren igoera konpentsatu zuelako, barne eskariaren jaitsiera eraginez. Frantzia, hazkunde eredia antzekoa izan zen, zeren eta kontsumo pribatua hazi bazen ere, kanpo arloak eragin baitzuen BPGaren %0,3ko gehikuntza, esportazioen bultzadari esker. Erresuma Batuak, berriz, ezustea eman zuen jardueraren %0,5eko atzerakada batekin. Herrialde horretako barne eskaria ahul agertu zen –kontsumo pribatua eta inbertsioa %0,3 baino ez ziren hazi- eta ez zen nahiko izan inportazioen hazkunde garrantzitsua konpentsatzeko. Hori dela eta, kanpo saldoak ia puntu oso bat kendu zion hazkundeari.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak 2011ko erdialdean hasi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion eta abuztuan %10,5ean kokatu zen. Maila horretan ekainetik dago aldatu gabe eta gaur arte inoiz jaso den daturik altuena da. Tasa horrek esan nahi du 25,4 milioi lagun baino gehiago zeudela lanik gabe. Berriro ere, eremuen arteko aldeak oso nabarmenak izan ziren. Esate baterako, erdialdeko herrialdeetan langabezia tasa abuztuan %6,3aren inguruan kokatu zen bitartean, periferiako herrialdeetan tasa horrek %15,5 gainditu zuen. Prezioek, berriz, nahiko egonkor jarraitu zuten, goranzko joera arin batekin, eta abuztuan %2,7an kokatu ziren, uztailleko balioa bi hamarrenetan gaindituz. Bizkortze hori bereziki 15 herrialdeek osatutako Europar nabaritu zen, Europar Batasuneko kide berrietan prezioen egonkortasuna nagusi izan baitzen.

Espainiako ekonomiak erritmo esanguratsuan egin zuen behera berriro aurtengo bigarren hiruhilekoan eta ekainean %1,3ko jaitsiera jaso zuen, finantza alorreko tentsioak oso goian zeuden testuinguru batean. Eraikuntzan eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren beherakada bizkortu izanak eta familiek kontsumoan eginiko gastuaren murrizketa handiagoak barne eskariaren jaitsiera bizkortu zuten, hazkundeari ia lau puntu kenduz. Kanpo arloak, berriz, bilakaera egonkorra izan zuen eta 2,6 puntu ekarri zizkion BPGari, aurreko hiruhilabeteko datua berdinduz. Dena dela, zenbateko hori ez da nahiko balio positiboetara itzultzeko.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren eta eraikuntzaren bilakaeran nolabaiteko hobekuntza hauteman zen, aurreko hiruhilekoaren aldean uzkurdura erritmoa leundu zutelako. Hala ere, beherakadak garrantzitsuak izan ziren eta bi sektore horien egoera, bereziki eraikuntzarena, larria da. Aipamen berezia merezi du zerbitzuen jaitsiera, gainontzeko arloen beherakada bizien aldean deigarria ez izan arren, 2009ko bigarren hiruhilekotik jaso duen lehena delako. Merkataritzaren, garraioaren, ostalaritzaren eta lanbide jardueren jaitsierak azaltzen du uzkurdura hori.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	0,9	-0,8	-0,8	-1,0	-2,1	-2,0	-2,4
- Familien gastua	0,6	-0,8	-0,9	-0,2	-2,4	-1,5	-2,2
- Administrazioaren gastua	1,5	-0,5	-0,5	-2,7	-1,1	-3,6	-3,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-6,2	-5,3	-4,9	-4,2	-6,0	-7,7	-9,4
- Aktibo finko materialak	-6,7	-5,8	-5,4	-4,7	-6,6	-8,4	-10,3
- Eraikuntzan	-9,8	-9,0	-8,5	-8,0	-8,6	-9,5	-11,8
- Ekipamendurako ondasunetan	2,6	2,3	2,9	3,5	-1,7	-5,9	-6,9
- Aktibo finko inmaterialak	3,5	3,1	1,4	4,9	2,0	3,0	2,9
Nazio eskaria (*)	-0,6	-1,9	-1,8	-1,8	-3,1	-3,2	-3,9
Esportazioak	11,3	7,6	7,1	7,6	5,8	2,8	3,3
Inportazioak	9,2	-0,9	-1,6	-1,2	-4,9	-5,9	-5,4
BPG (m.p.)	-0,3	0,4	0,5	0,6	0,0	-0,6	-1,3
Nekazaritza eta arrantza	2,0	8,2	8,2	8,7	7,8	2,6	2,5
Industria	4,3	2,7	2,4	2,5	0,2	-3,4	-3,1
Eraikuntza	-14,3	-5,9	-6,1	-4,3	-4,5	-7,3	-7,1
Zerbitzuak	1,2	1,4	1,6	1,6	1,1	0,9	-0,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,1	-5,5	-5,3	-6,0	-5,9	-0,5	-0,3
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,8	3,2	3,5	3,1	2,8	2,0	2,0
- Enplegua (**)	-2,5	-1,7	-0,9	-1,6	-2,9	-3,6	-4,6

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Jardueraren narriadura lan merkatura igaro zen eta enplegua %4,6 gutxitu zen. Lanpostuen galera industrian eta zerbitzuetan areagotu zen, baina eraikuntzan, arlo horrek izan zuen nolabaiteko hobekuntzaren ondorioz, enplegua desagertzeko erritmoa galgatu zen. Aurreko guztiaren ondorioz, azken urtebetean lanaldi osoko 801.000 lanpostu galdu ziren. Inflazioak, berriz, bilakaera apala izan zuen bigarren hiruhilekoan, baina uztailean goranzko joera hartu zuen eta irailean %3,5ean kokatu zen. Hilabete horretan indarrean sartu zen BEZaren igoera dago gorakada horren atzean.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu dituen datuen arabera, administrazio publikoek 50.132 euroko defizita zeukaten abuztuaren amaieran. Zenbateko hori BPGaren %4,77aren baliokidea da. Datu horiek bat datoz Gobernuak aurreikusi zituen gastuaren moteltzearekin eta diru sarreraren bilakaerarekin. Beraz, aurrekontuak egonkortzeko helburua beteko dela espero da.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek hiruhilekoan behin argitaratzen dituen kontu ekonomikoen 2012ko bigarren hiruhilekorako informazioak egiaztatzen du EAEko ekonomia atzeraldi batean murgilduta dagoela. Analisisile batzuek iragarri zuten W itxurako bilakaera egia bihurtu da EAEko ekonomiarentzat eta inguruneko herrialdeentzat. Izan ere, Euskal Estatistika Erakundeak %0,9ko jaitsiera estimatu du EAEko barne produktu gordinerako 2012ko apiriletik ekainera doan epealdian. Halaber, hiruhileko arteko tasa %-0,4 izan zen eta dagoeneko hiru hiruhilekoz eman ditu zeinu negatiboarekin. Murrizketa barne eskari ahul batean gauzatu zen, beraren osagai guztiek ekarpen negatiboak egin baitzizkioten hazkundeari. Ekonomiaren hazkundearen ardura kanpo arloaren bizkarrean egon zen, 1,4 puntu ekarri baitzizkion hazkundeari.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiak, lehena eta merkaturatzen ez diren zerbitzuak izan ezik, nabarmen okertu ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan. Industriak berriro erakutsi zituen atzeratzeko zantzuak ahultasun orokorreko joera batean, hala EAEko ekonomian nola ingurunean. Eraikuntzak beheranzko joeran murgilduta jarraitu zuen eta higiezinaren prezioak jaitsi diren arren eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza oraindik ez dela lortu erakusten du. Zerbitzuek ez zuten inolako hazkunderik izan iazko hiruhileko beraren aldean. Merkaturatzen ez diren zerbitzuen hazkunde positiboa baina txikiak salmentarako diren zerbitzuen atzerakada arina konpentsatu zuen.

Eskariaren ikuspegitik, familien kontsumoa nabarmen gutxitu zen, bi urtez hazkunde positiboak lortu eta gero. Etorkizuneko bilakaera ekonomikoaz dauden igurikimen negatiboek zuhurtzia eta aurrezteko joera areagotu dute kontsumitzaileen artean. Orobat, lan merkatuaren egoera zailak ez du laguntzen familiek gastu egitasmo garrantzitsuak egin ditzaten. Administrazio publikoek ere kontsumoa sakon murriztu zuten, beren aurrekontuetan defizit publikoa gutxitzeko helburua dutelarik. Kapital eraketa gordina, berriz, gutxitu egin zen osagai guztietan eta beraren bilakaerak EAEko enpresariaren artean hedatu diren igurikimen ezkorrak islatzen ditu. Finantzazioa lortzeko zailtasunek berriro lastatu zuten inbertsioa.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	1,2	0,3	0,5	0,3	-0,4	0,1	-1,6
- Familien gastua kontsumoan	0,9	0,6	0,3	0,9	0,5	0,1	-1,4
- Herri administrazioen gastua	2,3	-0,8	1,3	-2,0	-3,6	0,2	-2,4
Kapital eraketa gordina	-6,0	-1,5	-1,0	-0,2	-2,8	-4,2	-4,6
Barne eskaria	-0,5	-0,1	0,2	0,2	-1,0	-0,9	-2,3
Esportazioak	7,6	9,0	3,2	12,4	7,3	-2,3	-0,1
Inportazioak	5,5	7,4	2,1	11,1	4,9	-3,0	-2,1
BPG (m.p.)	0,3	0,6	0,8	0,6	0,2	-0,3	-0,9
Lehen arloa	24,7	-7,6	-16,0	-21,6	16,9	18,0	12,6
Industria	1,8	2,1	3,3	1,5	-0,2	-1,1	-2,6
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-5,6	-6,0	-4,8	-5,9	-6,2
Zerbitzuak	0,6	0,9	1,0	1,3	0,6	0,2	0,0
Balio erantsi gordina	0,1	0,7	0,9	0,6	0,1	-0,5	-1,0
Ekoizkinen zerga garbiak	2,0	0,2	-0,5	0,3	0,9	0,8	-0,1

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera

2012ko bigarren hiruhilekotik, EAEko lehen arloak bizitasun handia erakutsi zuen eta urte arteko hazkundea %12,6ra iritsi zen, azken hiru hiruhilekoetan %10etik gorako tasak lortuz. Hiruhileko arteko tasa ere positiboa izan zen (%1,7) eta aurreko hiruhilekoaren aldean hobekuntza txiki bat izan duela erakusten du.

Industriak beherakada garrantzitsua pairatu zuen 2012ko apirilaren eta ekainaren artean eta dagoeneko hiru hiruhileko kateatu ditu urte arteko hazkunde tasa negatiboekin. Hain zuzen ere, industriaren balio erantsi gordina %2,6 murriztu zen iazko epealdi beraren aldean. Ez kanpo eskariak ez, bereziki, barne eskariak erakutsi zuten EAEko industriak aurrera sendo joateko behar zuen sendotasuna. Izan ere, baieztatuta geratu da arlo horretako koiuntura adierazle batzuek, hala nola industria produkzioaren indizeak, hilabete batzuk lehenago iragartzen zuten beherakada. Estatistika horren arabera, industria ekoizpenak murrizketa garrantzitsua ezagutu zuen ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen diren talde guztietan eta jarduera adar guztietan.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
Industria								
Balio erantsi gordina	1,8	2,1	1,5	-0,2	-1,1	-2,6	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	2,7	1,5	-0,7	-2,3	-5,0	-8,8	-7,7	-6,8
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-15,5	-15,8	-19,5	-22,6	-18,8	-24,8
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	69,8	75,1	74,8	78,6	76,4	72,2	---	71,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,3	-2,2	-2,2	-2,6	-3,3	-4,4	-4,9	-4,9
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	-9,8	-5,3	-6,0	-4,8	-5,9	-6,2	---	---
Eraikuntzaren indizea	-16,9	-10,1	-4,3	-12,9	-22,8	-23,1	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-1,4	-8,3	7,8	-53,6	-22,3	-48,3	-32,7	---
Etxebizitzaren salerosketak	25,4	-20,0	-31,9	-18,9	-16,7	-27,0	-5,1	-18,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,5	-8,6	-9,1	-9,7	-11,1	-12,0	-12,2	-11,9
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	0,6	0,9	1,3	0,6	0,2	0,0	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,2	2,4	4,0	2,6	0,6	5,8	9,1	5,4
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,3	5,1	6,6	-1,0	-2,5	0,3	-1,3	2,1
Hoteletako okupazioa	43,7	45,9	61,1	40,5	33,1	48,7	60,4	69,6
Negozio zifren indizea	2,8	-0,9	-0,4	-4,1	-3,9	-7,1	-6,5	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	---	-3,8	-2,8	-3,9	-4,8	-8,9	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,9	0,6	0,3	-0,5	-1,4	-2,2	-1,7


(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


Industriaren joera negatiboa biltzen duen beste estatistika bat Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkesta da. Iritzi horietatik ondorioztatzen denez, industria giroaren indizea narriadurako ibilbide batean dago sartuta eta joera hori 2012ko bigarren hiruhilekoan areagotu zen. Beheranzko irudi hori ekoizpenaren etorkizuneko joeraz dauden igurikimen ezkorrek eragin dute, industriako enpresek dituzten eskari zorroen jaitsieraren ondorioz. Ikuspegi negatibo bera hauteman da industriaren ekoizpen ahalmenaren erabilera mailan ere, azken hiruhilekoetan jaitsi baitzen, %71,1ean kokatu arte, azken epealdietako baliorik apalena baita. Beraz, industria jardueraren jaitsiera etengabe agertu zen arlo horretako adierazle guztietan.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren balio erantsi gordina %6,2 gutxitu zen 2012ko bigarren hiruhilekoan eta, horren ondorioz, lau urte eta erdi darama etengabeko narriadura batean sartuta. Jarduera horrek doikuntza sakon batean murgilduta jarraitzen du eta oraindik ez dira gauzatu hazi ahal izateko oinarriak. Alde batetik, etxegintzaren jarduera mugatuta dago finantza alorreko horniduren gogortzearengatik eta neurri horrek etxebizitzak merkatura merkeago ateraraziko dituen arren, sustapen berrientzat eta hipoteka berrientzat murrizketa garrantzitsua ere bada. Bizitegiez bestelako eraikinei dagokienez, dagoen gehiegizko eskaintzak eta ekonomiaren ahultasunak haren hedapena mugatu dute. Azkenik, egoera ez da hobe ingeniari-tza zibilaren esparruan ere, zeren eta aurrekontuetako murrizketek administrazio publikoek garatu dituzten azpiegituren egitasmoak gelditzea ekarri baitute berekin.

Eraikuntzaren beherakada bizi hori agerian geratu da eskura dauden adierazle guztietan. Esate baterako, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizea %-23,1era jaitsi zen 2012ko bigarren hiruhilekoan. Jaitsiera hori ia modu homogeneoan banatu zen eraikinen atalean eta obra zibilaren esparruan. Baina lan merkatuaren aldagaian hautematen da bere gordinen sektore horren bilakaeraren nondik norakoa. Gizarte Segurantzaren afiliazioak eskaini dituen datuen arabera, azken hilabeteetan arlo horretako enplegua %12,0 inguru gutxitu da.

Zerbitzuen arloak ez zuen inolako hazkunderik lortu 2012ko bigarren hiruhilekoan eta, horren ondorioz, duela hiru hiruhilekoz hasi zuen moteltzeko joera baieztatuta geratu da. Jaitsierako ibilbide hori oso garbi marraztu zuten merkaturatzen diren zerbitzuek, %-0,1eko urte arteko tasa batekin aldakuntza negatiboetara itzuli direlako. Merkaturatzen ez diren zerbitzuek, ordea, joera egonkorragoa erakutsi zuten eta beren urte arteko hazkundea %0,4 izan zen, aurreko hiruhilekoaren antzekoa baita.

Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeari dagozkion datuen arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan beste narriadura garrantzitsu bat bizi zen EAEko merkataritzan. Zentzu beretik doa INEk egiten duen zerbitzuetako jardueraren indizea ere, azken hilabeteetan beherakada handia ezagutu duelako. Bitartean, turismoak sendotasuneko zantzuak erakutsi zituen eta bizkortze arina lortu zuen aldagai batzuen hazkunde tasan, hala nola hoteletan igarotako gaudien kopuruarenean, hoteletako okupazioarenean eta EAEko aireportuetatik igaro diren bidaiarien kopuruarenean. Zerbitzuetako narriadura islatu duen beste adierazle orokor bat Eustatek hiruhilekoan behin osatzen duen zerbitzuetako koiuntura indizea da. Estatistika horren informazioak %8,9ko beherakada orokorra estimatu zuen bigarren hiruhilekoan eta jaitsiera hori kontuan hartzen diren azpiatal guztietan gauzatu da.

Zerbitzuetako analisia lan merkatuaren oraingo bilakaeran fokatzen bada, apiriletik ekainera bitarteko epealdian narriadura neurritsua gertatu zela ondorioztatzen da. Bai Gizarte Segurantzako afiliatuetatik datozen datuek bai hiruhilekoka argitaratzen diren kontu ekonomikoetako emaitzek %0,7aren inguruko enplegu galera seinalatzen dute.

Eskariaren osagaiak

Barne eskariak aurtengo bigarren hiruhilekokoan nozitu duen beherakada biziaren barruan, barneko azken kontsumoaren jaitsiera handia azpimarratu behar da, %-1,6ra iritsi baitzen. Aldakuntza tasa hori bi osagai nagusien bilakaera negatiboak eragin zuen. Alde batetik, familien kontsumoa, bi urtez jarraian hazkunde positiboak jaso ondoren, %-1,4 murriztu zen. Beste aldetik, agerian geratu zen administrazio publikoek bideratu duten herostura egitasmoa, beren gastu sailak, termino errealean, %2,4 gutxitu zirelako.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,9	0,6	0,9	0,5	0,1	-1,4	---	---
BMI txikizkaria	-0,6	-3,8	-4,5	-2,9	-2,8	-7,6	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-0,5	-5,6	-4,3	-6,9	-3,1	-6,3	-5,6	---
Landunak txikizkarian	-0,3	-1,4	0,0	-0,9	-1,4	-1,2	-1,9	-1,8
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,9	-24,6	-11,4	-11,4	-10,3	-11,0	-12,1	-12,5
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-6,0	-1,5	-0,2	-2,8	-4,2	-4,6	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-1,3	5,8	6,7	5,9	-1,4	-6,8	-7,2	-8,8
IPI ekipamendua Espainia (*)	-2,7	-0,1	0,4	-5,0	-10,4	-12,1	-10,2	-9,1
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	4,7	1,4	2,5	8,4	7,1	1,3	-6,2	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-0,9	-17,5	-18,4	-14,1	-9,4	-5,5	-1,7	0,2

(*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskariaren osagaien bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazio errealak



Inportazio errealak



Iturria: Eustat.

Gaur egungo egoera ekonomikoaren aurrean eta etorkizuneko igurikimen negatiboak ikusita, familiak kontsumitzeko erabakiak geroratzen ari dira. Testuinguru ezkor horretan, kreditua eskuratzeko murrizketak eta, batez ere, lan merkatuaren narriadurak ez dute ezertan laguntzen. Merkataritza arloaz eta beraren salmentez informazioa biltzen duten aldagaiek agerian utzi dute familiek murrizketak egin dituztela beren gastuetan. Bide beretik doa automobilen salmenta, zeren eta 2012. urteko bigarren hiruhilekoan eginiko matrikulazioen kopurua serie historiko osoan jaso den datu txikiena baita. Aldi berean, familien zuhurtzia eta banku sistemaren kreditu murrizketak islatuta geratu ziren banku erakundeek emandako kredituen bilakaeran, apiriletik ekainera bitarteko epealdian %5,0 inguru gutxitu baitziren aurreko urteko epe berarekiko.


Barne eskariaren beste osagaiak, hots, kapital eraketa gordinak, beherakada gogorreko joerari eutsi zion eta urte arteko aldakuntza tasa %-4,6an kokatu zen. Osagai horren bi azpiatalek zeinu negatiboa erakutsi zuten 2012. urteko bigarren hiruhilekoan. Izan ere, eraikuntzan eginiko inbertsioak behera egin zuen berriro eta ez dirudi atzeraldirako joerak amaierarik izango duenik epe laburrean. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak ere atzera egin zuen epealdi horretan. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako industria produkzioaren indizeak, ekipamendurako ondasunen atalean, nabarmen egin zuen behera 2012ko apiriletik ekainerako hilabeteetan. Beheranzko joera horrek udako hilabeteetan ere jarraitu zuen. Era berean, ondasun mota horren inportazioak nabarmen apaldu ziren %1,3 arte, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Enpresariak oso garbi dakite beren enpresen jarduera mugatzen duten faktoreak zein diren eta lehen tokian eskariaren ahultasuna aipatzen dute, ondoren beren egitasmoetarako finantzazioa lortzeko zailtasun handiak daude, eta baita lehiaren igoera ere.

Kanpo saldoa


2012ko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiaren geldotasunak nazioarteko merkataritza kaltetu zuen eta ondasunen salerosketak modu garrantzitsuan gutxitu ziren. Zehazkiago adierazita, Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen estimazioen arabera, salgaien munduko esportazioen balioa %1,3 gutxitu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan. Tasa hori salmenten lehenengo jaitsiera da 2009ko amaieran atzeraldia gaindu zenetik. Esportazioen bultzadak izan zuen moteltzea ekonomia eremu guztietan nabaritu zen, baina Europar Batasuneko salmenten beherakada (%-8,1) nabarmendu zen guztien artean, eremu hori osatzen duten 27 herrialdeetara hedatu baitzen. Halaber, Indiak, Errusiak eta Hego Koreak izan zituzten murrizketak ere aipatu behar dira (guztietan %-1,7ko tasa jaso zen).

Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Nazioarteko merkataritzaren bilakaera txarra ez zen, oraingoz, EAEko ekonomiara hedatu, zeren eta atzerrira bidalitako esportazioen emaitzak balio positibotan jarraitzeaz gain, bigarren hiruhilekoan lehen hiru hilekoetan baino gehiago hazi baitzen. Zehazkiago adierazita, esportazioak %2,2 areagotu ziren, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi puntu gehiago. Guztira, salmenten balioak 5.100 milioi euroko langa gáinditu zuen eta serie historiko osoaren emaitza onenetako bat da. Hala eta guztiz ere, inportazioak izan ziren kaltetuenak. Kontsumo pribatuaren jaitsiera berriak, inbertsioaren murrizketa biziak eta euroaren balio galerak inportazioen urte arteko tasa %-17,4ra eramán zuten. Horren ondorioz, eta salmenten balioa

erosketena baino handiagoa izan zenez, EAEko merkataritza superabitak 1.381 milioi euroko datua gainditu zuen, aurrekaririk gabeko zenbatekoa baita.

Ekonomia eremuka, herrialde aurreratuetan saldutakoaren bizitasuna azpimarratu behar da, Japoniako merkatutik egin ziren erosketek (%121,1) lideratuta. Halaber, datu onak lortu ziren Europar Batasuneko kide berrietan (%13,4) eta Alemanian (%4,7) ere. Saldu ziren ekoizkinei dagokienez, ekipamendurako ondasunen kopuruak gora egin zuen berriro, hala pisuan nola balioan. Horri esker, konpentsatuta geratu zen esportazioen bilakaera baldintzatzen duen beste talde handiaren, hots, metal arrunten eta beren manufakturen salmentaren beherakada. Orobat, nekazaritzako produktuen salmentak lortu zuen gorakada garrantzitsua (%70,2) azpimarratu behar da, salmenta guztien %6,0 bereganatzea lortu zuelako. Inportazioei dagokienez, hiru zutabe nagusietatik bik izan zituzten beherakada handiek –produktu mineralak %30,4 gutxitu ziren eta metal arruntak %22,7- jaitsiera azaltzen dute.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € 2012-II
	2011			2012		
	II	III	IV	I	II	
Esportazioak:	2,3	25,5	24,8	0,2	2,2	5.134.358
Nekazaritzako produktuak	13,6	18,3	28,3	16,6	70,2	306.522
Prod. mineral eta energetikoak	0,2	11,1	104,8	-28,9	-32,9	299.006
Produktu kimikoak	23,2	-3,0	-15,8	-22,7	-10,8	109.488
Plastikoa eta kautxua	-22,9	198,8	21,4	78,3	25,5	403.337
Papera	14,1	-2,1	-4,6	-3,8	-7,2	128.978
Metal arruntak eta manufakturak	9,9	5,7	7,3	-7,4	-7,6	1.322.035
Makinak eta tresnak	19,1	5,1	25,4	19,2	7,4	1.037.014
Garraio materiala	-12,8	36,0	25,7	-7,7	9,9	1.249.871
Bestelakoak	10,6	5,3	2,0	0,8	-1,9	278.106
Inportazioak:	10,5	11,5	-2,8	-15,5	-17,4	3.752.518
Nekazaritzako produktuak	19,1	0,1	-4,3	-5,5	3,0	252.270
Prod. mineral eta energetikoak	12,9	9,9	-15,8	-30,2	-30,4	1.125.030
Produktu kimikoak	20,4	66,0	38,2	11,2	1,6	182.373
Plastikoa eta kautxua	20,4	70,2	38,8	17,3	-17,4	235.014
Papera	21,4	23,0	-7,0	-13,0	-27,5	87.691
Metal arruntak eta manufakturak	16,0	2,1	-6,2	-22,9	-22,7	850.324
Makinak eta tresnak	-9,9	4,0	5,1	6,3	3,3	607.707
Garraio materiala	10,9	-3,1	23,6	10,0	-5,5	167.312
Bestelakoak	1,4	7,6	-6,3	-0,9	6,3	244.797

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasunaren ekonomia jarduerak bizi duen moteltzeak EAEko eragileei eginiko eskaerei kalte egin zien. Izan ere, eremu hori oraindik EAEko esportazioen helburu nagusia izan zen arren, esportazioak europar merkatutik estatubatuar merkatura eta azaleratzen ari diren herrialdeetara zertxobait mugitu zirela egiaztatu da. Hain zuzen ere, EAEko esportazioen banaketan Europar Batasunak %62,3 bereganatu zituen, hots, aurreko hiruhilekoan baino 3,7 puntu gutxiago. Eremua osatzen duten herrialde guztiek ekonomia jarduera gutxitu zuten arren, Europar Batasunak, oro har, %1,9 areagotu zituen erosketak, 3.200 milioi eurora hurbildu zen diru kopuru bat osatuz.

Alemaniak eta Erresuma Batuak esportazio horietatik %35 baino gehiago erosi zituzten, bereziki kautxua, makinak eta tresna mekanikoak, eta ibilgailu automobilak. Horrek bide eman zion azken talde horri hazkunde positiboetara itzultzeko, 2012ko lehen hilabeteetako jaitsieraren ondoren. Hala ere, metal arrunten eta beren manufakturen salmentak izan zuen beherakadak eta makinak eta tresnen esportazioek izan zuten hazkunde txikiagoak kalte egin zieten Frantzia eta Italia eginiko salmentei eta frantziar merkatuari dagokionez salmentak %6,7 gutxitu ziren.

Aldi berean, EAEko ekonomiaren egoera ahulak Europar Batasunetik ekarritako inportazioen bilakaera baldintzatu zuen. EAEko eragileek erosi zituzten makina eta tresna guztien %75 eremu horrek –ia %40 Alemaniak saldu zituen- saldu bazizkien ere, burdin galdaketaren eta ibilgailu automobilen erosketen beherakada biziak (hurrenez hurren, %21,6 eta %10,3 jaitsi ziren) eremu horretan eginiko erosketak %5,9 gutxitzea eragin zuen.

EAEko produktuen kokatzea estatubatuar merkatuan aurreko hiruhilekoaren aldean nabarmen hobetu zen arren –salmenta guztien %5,9 hara bideratu ziren, hots, urte hasieran baino bi puntu gehiago-, salmenten urte arteko aldakuntza tasak ez zuen lortu tasa positiboak berreskuratzea. Hain zuzen ere, burdin eta altzairu galdaketaren manufakturen salmentak sendo hazi ziren, baita makinak eta tresnenak ere, baina hori ez zen nahiko izan erregai mineralen beherakada garrantzitsua konpentsatzeko, azken hau %53,5 gutxitu baitzen. Beraz, EAEko esportazioak AEBetara %19,4 murriztu ziren guztira. Datu positiboa Japoniako merkatutik etorri zen, eskari zorroa gehiago zabaldu izanak (ordura arte, erosketak ibilgailu automobiletara eta material mekanikora mugatuak ziren eta bigarren hiruhilekoan metal arrunteko kopuru handi bat ere erosi zuen) herrialde horretan saldutakoa %121,1 areagotzea ahalbidetu zuen.

Inportazioen bilakaera antzekoa izan zen, baina bilakaera apalago batean. Izan ere, AEBek EAEra saldutako erregai mineralen kopurua %45 gutxitu zen eta Japoniak %13,3 areagotu

zituen makinien eta tresna elektrikoen salmenta. Beraz, estatubatuar merkatutik iritsitako inportazioak %25,4 gutxitu ziren, eta Japoniatik etorritakoak, berriz, %7,9 hazi ziren.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2012-II	Guztiarekiko ehunekoa
	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II		
Esportazioak								
ELGE	21,1	27,3	32,8	33,2	4,9	1,9	3.952.753	77,0
Europar Batasuna 27	22,3	26,3	36,4	34,4	7,6	1,9	3.197.702	62,3
Europako kide berriak	26,4	29,4	64,9	23,2	15,2	13,4	257.745	5,0
Alemania	19,7	25,4	31,0	14,9	3,4	4,7	800.574	15,6
Frantzia	23,5	36,6	20,7	86,4	4,3	-6,7	822.454	16,0
AEB	18,1	20,1	4,2	-1,1	-39,5	-19,4	300.687	5,9
ELGE ez direnak	15,2	0,3	3,8	-0,1	-13,9	3,1	1.060.748	23,0
Inportazioak								
ELGE	24,7	9,8	12,4	11,7	5,4	1,4	2.590.587	69,0
Europar Batasuna 27	23,3	7,7	11,5	6,0	-13,1	-5,9	1.923.091	51,2
Europako kide berriak	9,0	19,5	52,6	-3,7	-28,1	1,7	100.308	2,7
Alemania	22,6	18,3	22,6	17,8	9,0	2,0	492.419	13,1
Frantzia	29,4	12,2	24,0	0,5	-4,2	-7,8	405.317	10,8
AEB	6,1	67,4	111,9	121,5	141,0	-25,4	157.178	4,2
ELGE ez direnak	36,7	15,3	10,4	-20,9	-39,0	-41,6	1.161.931	31,0

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Sei hilabetez ELGE erakundean parte hartzen ez duten bazkideekin harreman ekonomiko ez oso onuragarriak izan ondoren, 2012ko bigarren hiruhilekoan joera hori zeharo aldatu zen. Ekonomia horiek erakutsi zuten egonkortasunak bide eman zuen eremu horretako salmentak %3,1 igotzeko. Hain zuzen ere, Txinan eta Errusian makinien eta tresna mekanikoen esportazioen gorakadak ibilgailu automobilen salmentaren jaitsiera handia konpentsatu zuen. Beraz, bi herrialde horietara esportatutakoa %2,7 eta %9,5 hazi zen, hurrenez hurren.

ELGETik kanpoko inportazioak, berriz, nabarmen gutxitu ziren. Txinak, Brasilek eta Errusiak EAEn saltzen dituzten produktu motak asko ez izateak azaltzen du oraingo beherakada hori. Zehazkiago, metal arrunten eta beren manufakturen erosketa jaitsi izanak Brasiletik ekarritako inportazioak kaltetu zituen (EAEn saltzen duten guztiaren erdia dira produktu horiek).

Halaber, Errusiari dagokionez, EAEko eragileek produktu mineralen erosketa gutxitu izanak herrialde horren salmentak %63,4 jaitsarazi zuen. Txinak bakarrik lortu zituen hazkunde tasa positiboak. Makinen eta tresna elektriko eta mekanikoen erosketak ezagutu zuen gehikuntzak Asiako erraldoiak tasa positiboak berreskuratzeari ahalbidetu zuen, nahiz eta hauek oraindik oso urrun dauden azken urteetan izan zituzten mailetatik.

Lan merkatua

2012ko bigarren hiruhilekoan, lan merkatuak aurreko hiruhilekoetan erakutsia zuen narriadura areagotu zuen, berau aztertzen duten aldagai guztiek agerian utzi dutenez. Beraz, atzeraldiaren larriagotzearen eraginek nabarmen hauteman ziren lan merkatua ezaugarritzen duten aldagai behinenetan. Alde batetik, enpleguaren galera areagotu zen aurreko hiruhilekoen aldean eta, beste aldetik, lanik gabeko pertsonen kopuruak gora egin zuen berriro, nahiz eta lan merkatua uzteko erabakiek langabezia tasaren jaitsiera txiki bat ahalbidetu zuen.


Enpleguari dagokionez, hiruhilekoka argitaratzen diren kontu ekonomikoek %2,3ko jaitsiera estimatu zuten urte arteko tasan, aurreko hiruhilabetekoa baino nabarmen handiagoa. Beraz, 2011ko hastapenetan hasi zen beherakada areagotu da. Tasa horrek esan nahi du urtebete batean 22.400 lanpostu desagertu direla. Enpleguaren galera garrantzitsu hori baieztatuta geratu da Gizarte Segurantzako afiliazioak hilabeteetan behin argitaratzen dituen datuekin, epealdi berean %2,4 gutxitu zelako. Hala eta guztiz ere, erakunde horrek ezagutarazi duen informazio berrienak seinalatzen du litekeena dela enplegua egokitzeko erritmoan nolabaiteko egonkortzea gertatu izana, zeren eta hirugarren hiruhilabeteko batez besteko jaitsiera bigarrenean ezagutu zenaren oso antzekoa baita. Moteltze horren arrazoietakoa bat etxeko langileen azaleratzearekin du zerikusia, baina eraikuntzan eta beste zerbitzu batzuetan ere egonkortzeko joera hori hauteman da. Lan merkatuaren inkestek ere lanpostuen galera galgatu dela iradokitzen dute eta hala BJAk nola BAIk aurreko hiruhilabetekoaren oso antzekoak ziren jaitsiera tasak estimatu zituzten. Dena dela, gogoratu behar da estatistika horiek bilakaera gorabeheratsuagoak izaten dituztela.

Bigarren hiruhilekoan, lehen arloak bakarrik sortu zuen enplegu garbia, nahiz eta oso kopuru txikian izan zen (680 lanpostu) eta ez zen nahiko izan gainontzeko jardueretan galdutako lanpostu ugariak konpentsatzeko. Bolumenaren arabera, galdutako enpleguaren ia erdia industria arlokoa zen (ia 10.000 lanpostu), baina beherakada handiena ehunekotan eraikuntzan gauzatu zen berriro (%-12,1), dagoeneko lau urte eta erdi eman baitu lanpostuak murrizten, eta une hauetan 2000. urtean zeukan langile kopuru bera baitauka. Azkenik, zerbitzuek lehen


hiruhilabeteko jaitsiera arina %-0,7ra areagotu zuten, arlo horretako 4.400 pertsonak baino zertxobait gehiagok lanpostua galdu zutela iradokiz.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

BPGaren eta enpleguaren konbinaketak %1,4an utzi du produktibitatearen irabazia bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteetakoaren antzekoa eta 1995etik jaso duen batez bestea baino zertxobait handiagoa. Berrir ere eraikuntzak lortu zuen hobekuntzarik handiena, sektorearen produktibitatea %6,7 areagotuz, balio aparta baita oso gehikuntza txikiak izaten dituen arlo batentzat. Enpleguaren beherakada bizia dago irabazi handi horren atzean, eta ez

ekoizteko prozesuetan abiatutako hobekuntza bat. Industriak eta zerbitzuek ere produktibitatea handitu zuten bigarren hiruhilekoan (%1,8 eta %0,7, hurrenez hurren), beren ohiko balioekin bat eginez.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012	
			III	IV	I	II
Enplegua guztira	-0,9	-0,6	-0,7	-1,3	-1,7	-2,3
<i>Produktibitatea guztira</i>	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4	1,4
Enplegua lehen arloan	-1,0	-3,9	-2,9	-2,2	-0,3	3,2
<i>Produktibitatea lehen arloan</i>	26,0	-3,9	-19,3	19,5	18,4	9,1
Enplegua industrian	-3,6	-1,9	-2,1	-2,4	-3,0	-4,3
<i>Produktibitatea industrian</i>	5,6	4,1	3,7	2,3	2,0	1,8
Enplegua eraikuntzan	-6,9	-7,8	-8,0	-9,7	-11,7	-12,1
<i>Produktibitatea eraikuntzan</i>	-3,1	2,7	2,2	5,4	6,6	6,7
Enplegua zerbitzuetan	0,9	0,9	0,7	0,2	-0,1	-0,7
<i>Produktibitatea zerbitzuetan</i>	-0,3	0,0	0,6	0,4	0,3	0,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Aipatua izan denez, lan merkatuaren inkestek enpleguaren bilakaera negatiboak egonkortzeko joera hartu duela seinalatu dute. Horren erakusgarri da BJA inkestak enplegu tasaz, hau da, lana duten pertsonen ehunekoa lan egiteko adinean dagoen biztanleriarekiko, egin duen estimazioa. Izan ere, enplegu tasak bere beherakada bizia galgatu du eta %48,8an kokatu da, aurreko hiruhilekoan zuena baino hamarren bat gorago, nahiz eta duela urtebete bat zeukan mailatik puntu bat eta erdi beherago egon. Txanponaren aurkia emakumeen biztanleriak aurkeztu du, aurreko hiruhilabetearen aldean tasa igo duelako eta duela urtebete batekoa (%44,4) ia berdindu duelako. Aitzitik, ifrentzua gizonen aldera erori da, landunak galtzen jarraitzen duelako. Beste aldetik, 16 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetatik bi bakarrik daude lanean, kolektibo horretako asko (hamarretik zazpi) lan merkatutik kanpo daudelako, gehienak ikasketa ertainak edo goi mailakoak egiten ari direlako.

Lan merkatuaren egonkortzea biztanleriaren parte hartze tasan ere hauteman da, aurreko hiruhilekoan izan zuen %55,4an jarraitu duelako, nahiz eta hau ere aurreko urteko tasaren azpitik (%56,6) dagoen. Dirudienez, lan merkatutik irteteko joerak aurrera jarraitzen du gizonen artean, emakumeek beren tasa %50era hurbildu duten bitartean, serie historikoaren

baliorik gorenetakoa bat baita. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da tasa horiek 16 urte edo gehiago duen biztanleriarekin kalkulatzeko direla eta multzo horretan 64 urtetik gorakoek gero eta pisu handiagoa dutela eta, horren ondorioz, irudi desitxuratua eman dezakeela, zeren eta parte hartze tasaren jaitzierak iradokitzen duen lan merkatutik irtetea erretiroengatik gertatzen baita etsipenengatik baino gehiago. Hain zuzen ere, 2012an aurreko urtean baino 20.800 aktibo gutxiago zeuden, baina 16tik 64ra bitarteko biztanleria 23.300 lagunetan murriztu zen, 64 urtetik gorakoak aurreko urtekoak baino 9.300 gehiago izan ziren bitartean.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoak

	2010	2011	2011		2012	
			III	IV	I	II
Partaidetza tasa	55,9	56,2	56,0	55,8	55,4	55,4
- Gizonak	64,0	63,2	63,1	62,5	62,2	61,3
- Emakumeak	48,3	49,5	49,3	49,4	49,0	49,8
- 16 urtetik 24ra	31,9	30,3	29,8	28,1	29,2	27,5
- 25 urtetik 44ra	87,3	87,6	87,8	87,0	86,7	86,4
- 45 urte eta gehiago	39,3	40,2	39,9	40,4	40,0	40,2
Enplegu tasa	50,8	50,1	50,1	49,5	48,7	48,8
- Gizonak	57,8	56,1	56,0	54,9	54,4	53,9
- Emakumeak	44,2	44,4	44,5	44,4	43,4	44,1
- 16 urtetik 24ra	23,9	23,0	23,3	21,3	21,4	19,1
- 25 urtetik 44ra	78,9	77,1	77,4	75,9	75,1	75,1
- 45 urte eta gehiago	36,8	37,2	36,9	37,3	36,6	36,9
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,6	11,2	12,1	11,9
- Gizonak	9,6	11,3	11,3	12,1	12,6	12,1
- Emakumeak	8,6	10,3	9,8	10,1	11,5	11,5
- 16 urtetik 24ra	25,1	24,0	21,7	24,2	26,5	30,8
- 25 urtetik 44ra	9,6	12,1	11,8	12,7	13,4	13,0
- 45 urte eta gehiago	6,6	7,5	7,5	7,6	8,6	8,2


Iturria: BJA (Eustat).

Enplegu galera horren ondorioz, langabeziak gora egin zuen berriro, baina gehikuntza tasa (%7,0) aurreko hiruhilekoetakoak baino txikiagoa izan zen. Hori horrela izanda, langabezia tasa bi hamarrenetan jaitsi zen aurreko hiruhilekoarekiko (%12,1etik %11,9ra), baina puntu bat igo zen iazko balioarekiko. Langabezia tasak aurreko hiruhilekoaren aldean izan zuen jaitziera gizonen taldean gauzatu zen, baina oraindik emakumeen tasa (%11,5) gainditzen dute. Deigarria da gazteen langabezia tasak ezagutu duen gorakada, dagoeneko %30,8ra iritsi baita.

Hala ere, lehenago zehaztu denez, lan merkatuan parte hartzen duten gazteak gutxi dira (hamarretik hiru baino ez), gehienek ikasketak luzatzea erabakitzen dutelako, etorkizunean enplegu bat lortzeko aukerak areagotuz.

Europarekin alderatuta, EAEko langabezia tasak ia puntu erdi bat gutxitu du diferentzial negatiboa, baina oraindik puntu bat eta erdi gorago dago Europar Batasunaren batez bestea (%10,4) baino eta sei hamarrenetan gainditzen du Eurogunearen batez bestea (%11,3). Dena dela, espainiar ekonomiarentzat estimatu den %24,6aren oso azpitik jarraitzen du.

Langabezia tasaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua erregulatzeko dossierrei dagokienez, 2012ko bigarren hiruhilekoan gorakada garrantzitsua ezagutu zen aurreko urteko datuen aldean, hala dossierren kopuruan nola beraien eraginpean zeuden langileen kopuruan. Bi kasuetan, 2011. urteko zenbatekoak bikoiztu ziren. Are gehiago, uztailen eta abuztuan goranzko joera horrek jarraipena izan zuela hauteman da, zeren eta bi hileko horien batuketa iazko hirugarren hiruhileko osoan jasotako kopurua baino handiagoa baita dagoeneko. Dossier motaren arabera, pisu erlatiboa areagotu dute lanaldia murrizteko dossierrek eta kontratua amaitzekoek. Azken mota horri lotuta, gogoratu behar da lan merkatuaren azken erreformaren ondoren, ez dela beharrezkoa administrazioaren baimena kontratua bertan behera uzteko.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2010	2011	2011			2012		
			II	III	IV	I	II	Uzt-abu.
Dosierren kopurua	1.993	1.560	367	268	545	644	744	361
Eragindako langileak	35.426	22.072	4.337	4.733	7.414	9.811	9.431	5.500
<i>Dosier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	417	473	948	1.157	1.716	601
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	3.603	3.781	5.669	7.721	6.535	4.535
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	317	479	797	933	1.180	364

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, kontratu motari dagokionez, enplegu galera biziagoa izan zen langile finkoen artean aldi baterako artean baino. Izan ere, azken horien urte arteko aldakuntza tasa %-0,6an kokatu zen, baina kontratu mugagabea zuten soldatapekoena %3,9 jaitsi zen. Azalpenaren arrazoietako bat industrian gauzatzen ari diren irazitzeekin du zerikusia, sektore horretan proportzioz langile finko gehiago dagoelako. Orobat, erretiroa hartzen duten langileek, neurri handi batean, kontratu mugagabea dute, kontratazio berrietan aldi baterako kontratua askoz gehiago erabiltzen den bitartean. Aldakuntza erritmo horien ondorioz, 23.800 eta 1.000 lanpostu galdu ziren, hurrenez hurren, eta aldibaterakotasun tasak maila altuetan jarraitu zuen (%21,0).

Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen adierazle nagusi guztiek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten balio apaletan 2012ko bigarren hiruhilekoan. Are gehiago, industriaren prezioetan, IPRIren bitartez neurtuta, beheranzko joera garrantzitsua hauteman zen. Hala ere, azken hilekoetan, datuek gorakada nabarmena izan dute, neurri handi batean erregaien salneurrien bilakaeraren ondorioz. Ez horrenbeste beraiekin kotizazioak nazioarteko merkatuetan izan duen igoerarengatik europar diruak dolarraren aldean izan duen balio galerarengatik baizik, lehengai horren salerosketak estatubatuar diruan egiten direlako. Halaber, aipatu den gorakadak jarraipena izango du, seguruena, datozen hilekoetan ere, berriki onartu den BEZaren igoerak izango duen eraginarengatik.

Prezioak

Hain zuzen ere, BPGaren deflatorea ia ez da aldatu aurreko hiruhilekoaren aldean (%1,3 bigarreanean eta %1,2 lehenengoan), berau osatzen duten eskariaren osagaiek izan duten bilakaeraren ondorioz. Izan ere, bai kontsumo publikoarena (%0,6 lehen hiruhilekoan eta %0,4 bigarreanean) bai kapital eraketa gordinarena (%1,1etik %0,9ra) aurreko epealdian baino gutxiago hazi ziren bitartean, kontsumo pribatuaren deflatoreak, BPGaren deflatorean pisu handiena duena baita, %1,8an jarraitu zuen.


Kontsumoko prezioen indizeari dagokionez, barne eskariak bizitasuna galtzen ari zen heinean adierazle hori apalduz joan zen, %2aren azpitik kokatu arte (%1,9an, hain zuzen) eta baliorik gorenak 2011ko bigarren hiruhilabeteko hasieran jaso ondoren. Hala ere, abuztuan, argitaratu diren azken datuak hileko horretakoak baitira, joera osorik aldatu zen. Zehazkiago, hileko horretan, kontsumoko prezioak %2,4 igo ziren, hots, aurreko hilekoan baino puntu erdi bat gehiago. Gorakada horren arrazoa erregaien salneurriak, eurotan neurtuta, izan zuen garestitze nabarmena izan zen. Halaber, datozen hilekoetan KPIaren bizkortzea areagotuko da, lehenago aipatu den BEZaren igoerarengatik. Dena dela, igoera hori partzialki konpentsatuta gera daiteke petrolioaren salneurriak irailean izan duen apaltzearekin eta euroak dolarraren aldean lortu duen balio irabaziarekin, abuztuan izan zuen gorako eraginaren kontra jokatuko bailuke irailean.

Eurogunearekiko inflazio tarteari dagokionez, bigarren hiruhilekoan ere EAEko ekonomiaren aldekoa izan zen, baina azken hilekoetan diferentzial hori estutu da. Zehazkiago, EAEko inflazioa abuztuan Eurogunean jasotakoa (%2,6) baino bi hamarren apalagoa izan zen bakarrik, urte hasieran bi lurraldeen arteko diferentzia zortzi hamarrenekoa zen bitartean. Are gehiago, BEZaren igoera, seguruena, diferentzialaren zeinua aldatuko du hileko batzuetan eta EAEko kontsumoko prezioen indizea Eurogunearena baino gorago kokatuko da igoera horren eragina desegingo den arte.


Prezio altuko aurreikuspen hau leunduta geratzen da indize orokorra erabili beharrean azpiko inflazioa hartzen bada kontuan, zeren eta, hura ez bezala, azken honek ez baitu oraindik inolako gorakadarik ezagutu. Hain zuzen ere, azpiko inflazioa oso balio apaletan kokatu zen, %1,3an, abuztuko igoera indize orokorraren osagai gorabeheratsuenetan gauzatu zela agerian utziz, indizearen gune egonkorrenak oso portaera neurritsua erakutsi zuen bitartean. Hala ere, datozen hilekoetan adierazle honek ere gorako joera erakutsiko du, BEZaren igoerak KPI indizea osatzen duten ekoizkin talde guztietan eragina izango duelako.

KPlaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Indize horren osagaiek nahiko egonkor mantendu ziren, salbuespena landutako elikagaiak izan zirelarik, tabakoaren gaineko zergen igoeraren ondorioz beren prezioen hazkundera bizkortu baitzuten. Bitartean, energiaz bestelako industriako ondasunen salneurriak eta zerbitzuetakoak ia ez ziren aldatu. Aitzitik, hondar inflazioaren gorakada nabarmena azpimarratu behar da, energiak izan zuen garestitze garrantzitsuaren ondorioz, elikagai freskoek apaltzeko joera erakutsi zuten arren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2010	2011	2012			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	2,0	1,9	2,4	2,4
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,7	1,8	1,3	1,2	1,3	1,1
- Landutako elikagaiak (%13,6)	0,7	3,8	3,0	3,1	3,7	0,5
- Industriako ondasunak (%27,7)	-0,2	0,7	-0,1	-0,1	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%41,3)	1,4	2,0	1,6	1,3	1,4	0,6
Hondarreko inflazioa (%17,4)	6,6	9,5	5,2	5,7	7,5	1,3
- Landugabeko elikagaiak (%6,9)	0,2	1,5	2,0	2,9	2,5	0,2
- Energia (%10,5)	11,5	15,3	7,4	7,5	10,8	1,1

Iturria: INE.

KPIaren abuztuko gehikuntzan eragin handiena izan zuten taldeen artean, edari alkoholodunak eta tabakoa, etxebizitza eta garraioa taldeek, hurrenkera horretan, izan zuten bilakaera azpimarratu behar dira. Lehenengoari dagokionez, urte hasieran balio apalak jaso eta gero, gehikuntza garrantzitsuak ezagutu zituen, talde guztien artean tasa altuena (%9,7) erakutsiz. Etxebizitzak, berriz, %6,2ko igoera izan zuen urte arteko tasan, argindarraren eta gasaren salneurria igo zelako, baina baita berogailuetarako gasolioa garestitu zelako ere. Azkenik, garraioaren taldea ere nabarmen garestitu zen (%5,3), bereziki lehenago aipatu den erregaien prezioen igoeraren ondorioz.

Aitzitik, hiru taldek beren prezioak jaitsi zituzten eta horrek lagundu zuen indize orokorraren igoera leuntzen. Jaitsiera handiena komunikazioen taldeak eragin zuen, %4,6ko beherakada batekin, batez ere telefonia zerbitzuen prezioen jaitsieraren ondorioz. Talde horren ondoren, medikuntza agertu zen (%-1,6). Beheranzko joera hori zeharo aldentzen da Estatuko gainontzeko erkidegoetan jaso zen igoeratik (%6,4). Gogoratu behar da EAEn ez dela botiken eta farmaziako beste produktuen koordainketa ezarri eta horixe da portaera ezberdin horren jatorria. Aurrekoaren ondorioz, Espainiarekiko inflazio tarte hiru hamarrenetara zabaldu da (%2,4 eta %2,7). Azkenik, jantziak eta oinetakoak biltzen dituen taldeak %0,1 jaitsi zituen bere prezioak, beherapenen pisu garrantzitsuarengatik.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2010	2011	2011		2012		Abuztua
			III	IV	I	II	
Indize orokorra	1,7	3,1	2,9	2,7	2,0	1,9	2,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	2,4	2,4	2,7	2,5	2,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	10,7	9,8	6,2	7,8	1,9	7,3	9,7
Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,1	0,4	-0,1	0,5	-0,1
Etxebizitza	3,1	7,8	8,1	7,0	4,2	5,5	6,2
Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,0	1,3	0,3	0,4	1,3
Medikuntza	-0,1	-0,6	-0,5	-1,6	-2,7	-2,5	-1,6
Garraioa	6,5	7,7	7,4	6,2	5,2	3,6	5,3
Komunikazioak	-0,7	-0,8	-1,2	-1,5	-3,5	-3,8	-4,6
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,2	0,4	0,5	0,3	0,6
Irakaskuntza	2,2	1,3	1,0	1,3	2,1	2,8	2,8
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	1,7	1,2	0,9	1,0	0,9
Besteak	2,1	2,7	2,5	2,4	2,1	1,5	2,1

Iturria: INE.

IPRIaren bilakaerari dagokionez, adierazle hori %1,8 igo zen urte arteko tasan abuztuan, ezagutu den azken hilekoa baita. Beraz, aurreko hilabeteko tasa zazpi hamarrenetan gainditu du. Horren ondorioz, aurtengo bigarren hiruhilekoan hasi zen beheranzko joera bertan behera geratu da. Hemen ere gorakadaren jatorria energiaren bilakaeran dago, petrolioa fintzeko prezioaren gehikuntza, eurotan balioztatuta, nabaritu zuelako. Aitzitik, adierazle hori osatzen duten gainontzeko taldeek balio apalagoak erakusten jarraitu zuten eta kontsumorako ondasunetan eta bitarteko ondasunetan tasa negatiboak jasotzera iritsi zen. Industriaren ekoizpenak erakusten duen ahultasuna oztopoa da sektore horretan prezioak igotzeko, merkatu kuota galtzeko beldurrez.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011		2012		
			III	IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	3,3	7,6	7,3	6,2	3,2	1,6	1,8
Kontsumoko ondasunak	0,2	2,4	2,2	1,9	0,3	-0,5	-0,6
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	0,5	0,5	0,8	0,7	0,7	0,3
- Kontsumo iragankorrak	0,5	3,1	3,0	2,3	0,2	-1,0	-1,0
Ekipamendurako ondasunak	0,1	2,1	2,2	2,2	1,4	1,2	0,7
Bitarteko ondasunak	3,1	6,2	5,5	3,2	0,6	-0,6	-1,2
Energia	11,7	21,9	21,9	21,7	13,3	8,2	12,0

Iturria: Eustat.

Lan kostuak eta soldatak

INEk lan kostuez argitaratzen duen estatistikaren arabera, EAEko kostuen guztizkoak aurreko hiruhilabeteko erritmoari eutsi zion, nahiz eta igoeraren osaketa zertxobait aldatu zen. Izan ere, soldaten kostua %2,4 areagotu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino ia puntu oso bat gehiago. Gainontzeko kostuak, ordea, %1,6 baino ez ziren hazi. Gehikuntza tasa horiek altu samarrak dira, bereziki Estatuan jaso ziren datuekin (%-0,3 izan zen kostu guztien aldakuntza tasa) alderatzen badira. Halaber, langile bakoitzeko lan kostua EAEn gainontzeko erkidegoetan baino gehiago igo zen, nahiz eta balio absolutuetan Madrilek jaso zituen baliorik gorenak. Kostuen igoera hori zerbitzuetan gauzatu zen, hala industrian nola eraikuntzan kostuak aurreko urteko epealdi beraren aldean gutxitu ziren bitartean.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	1,4	0,6	-0,4	2,5	0,7	2,2	2,2
- Soldata kostuak	2,0	0,2	-1,2	0,7	0,9	1,4	2,4
- Bestelako kostuak	-0,4	1,9	1,9	8,0	0,2	4,6	1,6
Kostu osoa industrian	2,3	1,6	3,2	2,5	1,7	4,0	-0,2
Kostu osoa eraikuntzan	-0,3	2,3	1,8	2,2	1,7	-2,6	-2,9
Kostu osoa zerbitzuetan	1,4	0,3	-1,8	3,1	0,6	2,2	3,8

Iturria: INE.

Emaitzak are deigarriagoak dira kostuak langileko aztertu beharrean lan egindako orduko aztertzen badira. Hain zuzen ere, kasu horretan hazkunde garrantzitsuenak EAEn jaso ziren (%4,8, Estatuko batez bestean %0,7 baino hazi ez ziren bitartean) eta ordu bakoitzeko kostua ere, eurotan, beste erkidegoetan baino altuagoa izan zen (23,1 euro). Hori ekoizpenaren egiturari lotuta dago, EAEn beste erkidegoetan baino enplegu kualifikatu gehiago dagoelako. Lan egindako ordu bakoitzeko kostua bereziki zerbitzuetan igo zen, baina baita industrian ere. Aitzitik, eraikuntzak urte arteko jaitsiera bat ezagutu zuen berriro.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			2012	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	0,6	0,7	-1,4	4,4	1,8	2,9	4,8
- Soldata kostuak	1,2	0,2	-2,2	2,6	2,0	2,1	5,0
- Bestelako kostuak	-1,1	2,1	0,9	9,9	1,2	5,4	4,1
Kostu osoa industrian	0,3	-0,5	-1,8	3,8	0,7	4,4	2,3
Kostu osoa eraikuntzan	0,7	1,7	-1,4	4,3	3,6	-1,5	-1,8
Kostu osoa zerbitzuetan	0,6	1,2	-1,2	5,2	2,2	2,6	6,4

Iturria: INE.

Azkenik, atzerapen handiko testuinguru batean negoziazio kolektiboan eta oso ordezkagaitasun mugatu batekin, hitzarmen kolektiboek soldata igoera nabarmenak jaso zituzten, 2011n adostuetatik hurbil. Bereziki deigarria da urtean zehar sinatu diren kontratuetan adostu den gehikuntza. Negoziazio eremuaren arabera, igoerak askoz ere garrantzitsuagoak dira sektoreko hitzarmenetan, enpresakoetan neurritasun handiagoa hauteman den bitartean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2008	2009	2010	2011	2012 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	5,0	2,7	1,9	3,6	3,9
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	6,5
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	4,4
- Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,5

(*) 2012ko abuztua arte jasotako lan hitzarmenak
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu egikaritzaren datuek, ekaina arte, gastuak kontrolatzeko asmoa agerian uzten dute, oso gehikuntza txikia izan baitzuten aurreko urteko lehen sei hilekoaren aldean. Bereziki nabarmena da gastu arrunten neurritasuna, kopuru handiena biltzen duen osagaia baita, zeren eta %0,1 baino ez baitzen hazi. Kapitaleko gastuak, berriz, %5,0 areagotu ziren.

Aurkeztu den informazioak iradokitzen du Eusko Jaurlaritzako doikuntzak bereziki funtzionamenduko gastuetan egiten ari direla, %2,3 gutxitu baitira, pertsonaleko gastuak %0,5 bakarrik igo diren bitartean. Finantzako gastuak, berriz, %59,9 areagotu ziren, zor publikoaren igoeraren ondorioz. Gastu partida handiena, hots, transferentzia arruntena, ia ez da ezer aldatu (%0,1).

Kapitaleko gastuetan, atalen birmoldaketa hauteman da, zeren eta kapitaleko transferentziak modu garrantzitsu batean murriztu baitira, baina jaitsiera hori inbertsio errealek gehikuntza bizi batek konpentsatu du.

Beste aldetik, diru sarrera arruntak %0,3 areagotu ziren, epealdi horretako aurrezki gordinak 273 milioi euroak lortzea eta aurreko urteko emaitza %3,2an gaitzitzea ahalbidetuz. Zenbateko horri kapitaleko eragiketen saldoa gehitzen bazaio, Eusko Jaurlaritzaren finantzazio ahalmena ia 13 milioi eurora iristen da, 2011ko epealdi berean zeuden -42 milioien aldean.

EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEN ERAGIKETA (2012ko urtariletik ekainera)

Mila eurotan

	2011	2012	Aldaku. %
1. SARRERA ARRUNTAK	4.455.663	4.467.059	0,3
2. GASTU ARRUNTAK	4.190.585	4.193.402	0,1
Langileen gastuak	936.835	941.840	0,5
Funtzionamenduko gastuak	1.502.710	1.467.730	-2,3
Finantza gastuak	53.267	85.183	59,9
Transferentzia arruntak	1.697.773	1.698.649	0,1
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	265.078	273.657	3,2
4. KAPITALEKO SARRERAK	7.237	68.538	847,0
5. KAPITALEKO GASTUAK	314.309	329.898	5,0
Inbertsio errealak	48.127	128.383	166,8
Kapitaleko transferentziak	266.182	201.515	-24,3
6. FINANTZA AHALMENA (+) EDO BEHARRA (-) (3+4-5)	-41.994	12.297	---

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Zerga itunduen diru bilketak ondo islatzen ditu EAEko ekonomiak bizi dituen zailtasunak, beraren BPG nominala %0,5 baino ez baitzen hazi aurtengo lehen seihilekoan. Hori horrela izanda, uztaila arteko diru bilketa %2,4 jaitsi zen iazko emaitzaren aldean. Hala eta guztiz ere, datu hori neurri batean desitxuratuta dago, alde batetik EAEk berreskuratu zuelako 2011. urtean Estatuak BEZaren doikuntzan deskontatu zuen zenbatekoa eta, beste aldetik, Rover auziaren ondorioz itzulketa bat egin behar izan zelako. Portaera ezberdina hauteman da zerga mota bakoitzean eta zuzeneko zergek %3,7ko gehikuntza lortu zuten bitartean, zeharkako zergak ez ziren gai izan 2011ko diru sarrerak berdintzeko.

Zuzeneko zergekin eta figura garrantzitsuenetarikoa batekin hasita, PFEZren bilakaera datu negatibotan kokatu zen (%-1,4). Tasa hori bateragarria da aurtengo lehen seihilekoan jaso zen enplegu galera garrantzitsuarekin (%-2,0). Beherakada hori bereziki lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenean hauteman da, %3,3 gutxitu zelako. Aitzitik, kuota diferentzial garbiak zergaren jaitsiera leuntzen lagundu zuen, aurreko kanpainan baino diru gutxiago itzuli zuelako. Zergaren gainontzeko atalek, salbuespena profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak direlarik, emaitza positiboak jaso zituzten, baina beraien kopuruak goiko bi horienak baino askoz txikiagoak dira.

Oraindik zuzeneko zergen barruan, sozietateen gaineko zergaren bilakaera azpimarratu behar da, hazkunde nabarmena (%13,4) erakutsi zuelako. Hala ere, zerga horren diru bilketa PFEZaren hamarrena baino ez da. Zergaren atal guztiek, kuota diferentzial garbiak izan ezik, gora egin zuten iazko emaitzen aldean. Izan ere, kontura eginiko lehen ordainketaren sarrerek aurreko urtean kontabilizatu zirenak gainditu zituzten, aurreko onartu diren doikuntza fiskaleko neurriei esker.

Zeharkako zergei dagokienez, oro har, diru bilketa aurreko urtekoa baino %12,7 txikiagoa izan zen. Zerga multzo honen figura nagusiak, hots, BEZak, jaitsiera apaltzen jarraitu zuen, baina oraindik beherakada garrantzitsuak jaso ditu iazko diru sarreraren aldean (%-14,6). Hala eta guztiz ere, gogoratu behar dira zerga honen diru bilketa desitxuratzeko duten eta lehenago aipatu diren gertakariak. Alde batetik, barne eskariaren ahultasunak eta bizitegi berrien salmentak izan duen jaitsierak BEZaren diru sarreraren jaitsiera azaltzen dute, baina, halaber, kontuan hartu behar da egin diren itzulketen igoerak zerga horretan izan duen eragin negatiboa.

Zerga bereziek ere emaitza negatiboak jaso zituzten 2012. urteko lehen zazpi hilekoetan eta %8,2 jaitsi ziren. Atal horretan sartzen diren zergen artean, aurreko urtearen aldean gehikuntza tasa bat lortu zuen bakarria tabakoaren jarduerengatik ezartzen den zerga izan zen (%6,4), beharbada iragarri ziren neurri berrien aurrean, hala nola BEZaren igoera eta zerga berezi horretako aldaketak, tabakoa pilatzeko asmo batek eraginda. Aitzitik, gainontzeko zergek diru bilketa gutxitu zuten berriro. Zehazkiago adierazita, hidrokarburoen gaineko zergaren bilketa %13,1 gutxitu zen, ekonomia jardueraren moteltzeak eta prezioen igoerak erregaien kontsumoa jaitsarazi zutelako. Orobat, garagardoaren eta alkoholaren gaineko zergek diru gutxiago bildu zuten, argindarraren gaineko zergarekin gertatu zen bezala. Azken zerga horretan tarifaren igoera nabarmena izan bazen ere, kontsumoaren geldotasunak diru bilketaren bilakaera zeharo lastatu zuen.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2012ko urtariletik uztaiera)

Mila euro


ZERGAK	Diru bilketa			
	2011	2012	Aurrekon. %	12/11 aldak. %
PFEZ	1.942.217	1.915.572	43,1	-1,4
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	2.384.418	2.306.437	50,0	-3,3
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	113.348	143.602	68,7	26,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	44.469	45.377	51,1	2,0
- Ondare irabazien atxikipenak	8.229	13.154	96,5	59,8
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	83.137	80.674	50,2	-3,0
- Kuota diferentzial garbia	-691.385	-673.671	106,3	2,6
Sozietateen gaineko zerga	215.405	244.221	21,4	13,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	113.348	143.602	68,7	26,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	44.469	45.377	51,1	2,0
- Ondare irabazien atxikipenak	8.229	13.154	96,5	59,8
- Kuota diferentzial garbia	49.358	42.088	5,1	-14,7
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	40.515	16.181	21,1	-60,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	45.849	47.459	58,4	3,5
Ondarearen gaineko zerga	---	105.482	---	---
Iraungitako zergak	1.877	---	---	---
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	2.245.863	2.328.915	40,5	3,7
BEZaren bertoko kudeaketa	1.607.050	1.372.292	40,5	-14,6
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	62.167	49.927	45,5	-19,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	34.750	25.033	42,2	-28,0
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	15.460	11.549	47,0	-25,3
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	789.840	724.868	51,8	-8,2
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	24.589	24.073	48,5	-2,1
Aseguru sarien gaineko zerga	41.057	38.875	48,8	-5,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.574.912	2.246.617	43,5	-12,7
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	57.835	58.658	51,3	1,4
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	4.878.611	4.634.191	42,0	-5,0
BEZaren doikuntza	367.140	485.518	40,2	32,2
Zerga berezien doikuntza	-80.026	-76.972	69,5	3,8
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	5.165.725	5.042.737	41,6	-2,4

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

2012ko bigarren hiruhilekoan amaitu zen aurtengo lehen laurdenean finantza merkatuek bizi zuten egonkortasun erlatiboa. Munduko hazkunderari buruzko igurikimenek okerrera egin izanak eta Europako zor subiranoaren krisiari lotutako etengabeko tentsioek arrisku sarien gorakada garrantzitsuak, gorakada eta beherakada handiak burtsako indizeen eta euroaren balio galera dibisa nagusien aldean eragin zituzten.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Europako merkatuetan ziurgabetasuna izan zen nagusi, hala Greziako finantza egoerarengatik nola Espainiako finantza publikoen bilakaerarengatik zein finantza sistemaren sendotasunarengatik. Bi ekonomia horien etorkizunaz dauden zalantzek eta irtenbide eraginkorren faltak alarma giroa piztu zuten, uztailan Greziako (2.668 oinarri puntu), Espainiako (639 puntu) eta Italiako (537 puntu) arrisku sariak igoaraziz.

Ezegonkortasun horren aurrean, inbertitzaileek kalitate handieneko aktiboak nahiago zituzten eta horrek AAA kalifikazioa duten herrialdeen zorrari mesedea egin zion. Izan ere, ekainaren amaieratik, Alemaniako bonuen errentagarritasuna inoizko baliorik txikienetara iritsi zen, 1 eta 2 urterako obligazioetan interes tasa negatiboak eskaintzera helduz. Hain zuzen ere, euroaren krisia hasi zenetik, hots, 2010eko hasieratik, Alemaniak 25.000 milioi euro aurreztu dituela interesetan kalkulatu da. AEBetan eskainitako bonuek ere babes balio gisa jokatu dute eta, horren ondorioz, beraien errentagarritasunak balio minimoetan jarraitu zuen. Baikortasuna abuztuaren amaieran itzuli zen. Europako Banku Zentralak merkatuetan parte hartu zezakeelako iragarkiak eta Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak erreskate funts iraunkorra sortzeari eman zion sostenguak periferiako herrialdeen arrisku sariak murriztea ahalbidetu zuten, eta irailaren hasieran diferentzialak apirilaren hasierako mailetara itzuli ziren (Espainian 404 puntu, Italian 344 eta Grezian 1.906).


Testuinguru zail horretan, banku zentral nagusiek moneta politika hedakorrak bideratu zituzten, ezohiko izaera zuten hainbat tresnatan oinarrituta. Izan ere, arrisku sarien kontrolik gabeko gehikuntzen aurrean, EBZk esku hartzeko interes tasa, lehen aldiz euroaren kudeatzailea eman dituen hamabi urtean, %1aren azpitik kokatzea erabaki zuen eta %0,75ean utzi zuen. Orobat, diruaren zirkulazioa sustatzeko asmoz eta horrela ekonomia errealerara iritsi zedin, gordailu eta kreditu erraztasunetara bideratutako interes tasak jaitsi zituen, hurrenez hurren %0ra eta %1,5era. Erreserba Federalak, berriz, aldaketarik gabe utzi zuen esku hartzeko interes tasa (%0 eta %0,25 artean) eta hedapen kuantitatiboko hirugarren aldia (QE3) martxan jarri zuen. Tresna horren bidez erakundeak 40.000 milioi dolar erosiko ditu hilero hipoteka bonuetan, langabezia tasa jaitsi arte. Japoniako Bankuak (%0,1) eta Ingalaterrakoak (%0,5) ere ezohiko neurriak erabili zituzten eta 10 bilioi yen eta 50.000 milioi libera sartu zituzten, hurrenez hurren, beraien finantza sistemetan.

Garapen bidean dauden herrialdeetako banku zentralek, era berean, moneta politika hedakorrak onartu zituzten hazkunde erritmoa sustatzeko. Hain zuzen ere, Txinako Herri Bankuak merkatuak ezustean harrapatu zituen uztailan erreferentziako tasak bi aldiz jaitsiz eta esku hartzeko tasa %6,0an kokatu zuen. Brasileko Bankuak, berriz, %7,5era beheratu zuen, inoizko baliorik apalena baita.


Martxoaren amaieratik eta uztailaren zati handi batean zehar, euroaren truke tasak balioa galdu zuen. Eurogunearen bideragarritasunaz dauden etengabeko zalantzek Europako diru bakarraren kotizazioa dolarren aldean, uztailean, ia 1,20 dolarrekoa izatera bultzatu zuten, 2010etik izan duen baliorik apalena baita. Halaber, epealdi berean euroak %8,5 galdu zuen yenaren aldean, %3,7 libera esterlinaren aldean eta %0,3 suitzar frankoaren aldean. Hiru hileko balioa galtzen egon ondoren, abuztuan truke tasak egonkortzeko joera hartu zuen, baina irailera arte itxaron behar zen joeraren aldakuntza ikusteko. Erreserba Federalak, ekonomia sustatzeko asmoz, likidezia gehiago ematea (QE3) erabaki zuen eta horrek dolarren sendotasuna kaltetu zuen eta euroari, berriz, 1,30 dolarreko balioa berreskuratzea ahalbidetu zion.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libra esterlina



Suitzako frankoa



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Martxoaren amaieratik ekainaren hasierara bitartean, epe laburreko igurikimenen narriadurak Atlantikoaren bi aldeetako burtsak atzerarazi zituen. Hain zuzen ere, Euroguneko burtsen kotizazioak %10,5 jaitsi ziren eta AEBetakoak, berriz, %0,3. Harez geroztik, EBZk finantza egonkortasuna sendotzeko aurkeztu zituen neurriei esker, eta AEBetako moneta politika egokitzailearen jarraipenaren ondoren, burtsek galdutakoaren zati bat berreskuratu zuten. Irailaren erdialdean, Eurostoxx-50 indizeak %12,0 areagotu zituen irabaziak urte hasieratik eta Dow-Jones indizeak, berriz, %11,1.


Espanian, ekainaren hasieran, Bankiak funts publikoen behar handia zuela argitaratu izanak eta espainiar ekonomiaren ahultasunak IBEX-35 indizea behera eramane zuten azkar, 6.000 puntuetara jaitsaraziz, urte hasieratik pilatutako beherakada %29,2 izan zelarik. Espainiako gobernuak bideratu zuen finantza erreformak eta, batez ere, Europar Batasunari laguntza eskatu izanak beheranzko joerari buelta eman zioten. Hala eta guztiz ere, eta irailaren erdialdean 8.000 puntuko maila berreskuratu zuen arren, galera pilatua %4,0aren ingurukoa da.

Interes tasen bilakaera %

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Moneta politikaren lasaitzea bankuen arteko merkatura hedatu zen eta bide eman zion interes tasa ofizialak jaisteko. Zehazkiago adierazita, urtebete baterako euriborrak iazko azaroan hasi zuen beheranzko joerari jarraipena eman zion eta %0,74an amaitu zen irailean. Tasa horrek ez du bakarrik balio minimo bat markatzen, zeren eta lehen aldiz azken hiru urtean diruaren prezio ofizialaren azpian kokatu baita.

Kreditu pribatuaren bilakaerari dagokionez, EAEko banku eta kooperatibetatik lortutako finantza informazioaren arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan, kreditu pribatuek beheranzko joera areagotu zuten eta %2,8 murriztu ziren, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago. Jaitsiera ekoizpen jarduerak finantzatzera bideratu zen kredituan eta familien gastua finantzatzekoan hauteman zen, biak gutxitu zirelako.

EAE-KO KREDITU PRIBATUEN SAILKAPENA ESKATUTAKO XEDEAREN ARABERA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € 2012-II	Guztiarekiko ehunekoa
	2011	2011		2012			
		III	IV	I	II		
Xedeak:							
Ekoizpen jarduera finantzatzea	-2,4	-5,6	-3,7	-6,9	-8,9	16.773.805	27,9
Eraikuntza	-7,6	-11,4	-5,4	-13,2	-10,9	2.969.212	4,9
Higiezinaren jarduerak	-5,2	-7,9	-2,3	-10,8	-8,4	6.496.947	10,8
Bestelakoak	2,9	-0,7	-4,2	-0,4	-8,5	7.307.646	12,2
Familien gastua finantzatzea	0,9	0,6	0,3	-0,2	-0,3	42.764.755	71,2
Etxebizitza erostea	1,5	1,2	1,1	0,5	0,4	38.009.641	63,3
Kontsumo iraunk. ond. erostea	-15,1	-6,1	-6,8	-13,6	-12,4	746.453	1,2
Familien beste gastuak	-1,4	-3,5	-5,6	-4,0	-4,2	4.008.661	6,7
Bestelakoak	-58,2	-32,8	-63,2	-26,5	3,8	518.151	0,9
GUZTIRA	-1,4	-1,8	-2,3	-2,5	-2,8	60.056.711	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EAEko banku, kutxa eta kooperatiben datuetan oinarrituta.

Zehazkiago adierazita, ekoizpen jarduerak finantzatzeko kreditu pribatuak izan zuen murrizketa handiagoaren arrazoiak maileguak emateko baldintzak berriro gogortu izana da. Izan ere, ekonomia aurreikuspenak gehiago okertu izanak eta finantzazioa lortzeko zailtasunak areagotu izanak finantza erakundeak baldintza zorrotzagoak ezartzera behartu zituzten.

Beste aldetik, etxebizitza bat erosteko familiei emandako maileguek beheranzko joera leunari jarraipena eman zieten eta %0,4 baino ez ziren hazi. Hazkunde tasa txiki horren arrazoiak (duela bi urte %4,5 hazi zen) higiezinak erosteko funtsen eskaria aurtengo bigarren hiruhilekoan gutxitu izana da, lehen hiru hilabeteetako moteltzea bezain markatua ez izan arren. Hala eta guztiz ere, esku hartzeko interes tasaren jaitsiera ez zen familien maileguetako interes tasetara zabaldu eta kreditu berrien finantzazio kostuak berriro areagotu ziren. Izan ere, emandako hipoteken kopurua hainbeste apaldu da ezen, INEren arabera, kendutako hipoteken kopurua emandako berrienera hurbildu baita.

Familiei kontsumo iraunkorreko ondasunak (automobilak, etxeko tresna elektrikoak eta besteak) erosteko emandako maileguen bilakaerak antzeko joera erakutsi zuen. Kreditu bat lortzeko arazoek eta familien egoera ekonomiko txarrak %12,4 jaitsarazi zuten. Horren ondorioz, familien gastua finantzatzera bideratutako kredituak %0,3 gutxitu ziren.

Bi jaitsieren batuketak (ekoizpen jarduerak finantzatzeko kredituarena gehi familien gastua finantzatzekoa) 2.500 milioi eurotan baino gehiagotan gutxitu zuen EAEko familien zorra aurtengo lehen hiruhilekoaren aldean. Hala ere, zalantzaeko kredituen bolumenak gora egin du martxotik eta berankortasuneko ratioa %5,11ra igo zen, bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunak erostera zuzendutako kredituen ez ordaintzeak gehiago izan direlako. Ez ordaintzeak areagotu diren arren, EAEko tasa oraindik Espainiako berankortasuneko mailaren azpitik jarraitzen du, azken hau %10aren inguruan baitago.

EAE-KO GORDAILU PRIBATUEN SAILKAPENA

	Urte arteko aldakuntza tasak					Mila € 2012-II	Guztiarekiko ehunekoak
	2011	2011		2012			
		III	IV	I	II		
Kreditu kooperatibak	0,8	1,2	0,8	-0,1	-2,1	12.804.925	18,4
Banku eta kutsak	-2,8	-2,0	-2,8	-7,9	-9,0	56.805.537	81,6
Ageriko gordailuak	16,9	11,6	16,9	6,1	-8,2	13.382.473	19,2
Aurrezki gordailuak	-15,2	-15,4	-15,2	-19,5	-0,7	12.610.824	18,1
Eperako gordailuak	-4,5	-1,3	-4,5	-7,9	-12,4	30.812.239	44,3
GUZTIRA	-2,2	-1,4	-2,2	-6,6	-7,8	69.610.462	100,0

Iturria: Espainiako Bankua.

Espainiako Bankuaren arabera, gordailu pribatuek %7,8ra bizkortu zuten beren jaitsiera. Orain arte, EAEko eragileek likideziaren aldeko hautu garbia egin zuten eta dirua eperako eta aurrezkiko gordailuetatik ageriko gordailuetara eramane zuten. Hala ere, badirudi Espainiako finantza arloak bere egoera onbideratzeko behar duen finantzazio maila altuak mota guztietako gordailuen ihesa eragin duela. Hain zuen ere, EAEko gordailu pribatuak 69.610 milioi euro ziren, aurreko hiruhilekoan zeudenak baino 149 milioi euro gutxiago eta duela urtebete bat baino 5.880 milioi gutxiago. Baina BBVAk eginiko azterlan batek azaltzen du ez dagoela gordailuen ihesik, bankuen merkataritza estrategiaren aldaketa bat baizik. Izan ere, ordainsari handiko gordailuak ordainsari handiko zor agiriekin ordezkatu dituztela, azken hauek ez dutelako zigorrik euriborra gainditzekotan.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Consensus Forecast bezalako erakundeek aurreikuspenak %2,6an kokatzen dute munduko ekonomiaren hazkunde tasa 2012. urtean eta %2,8an, berriz, 2013an. Munduko ekonomiaren bilakaera datozen hiru hilabeteetan, neurri handi batean, bi gertakari baldintzatuko dute: garapen bidean dauden ekonomiek, beren hazkundearen moteltzearen ondorioz, aurrean duten erronka eta Eurogunearen ekonomiak hartuko duen bidea zor subiranoko krisiarekin eta ekonomia oinarri ahulekin.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumo prezioen indizeak		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Munduko ekonomia	3,1	2,6	2,8	3,8	3,0	2,9
AEB	1,8	2,2	2,1	3,1	2,0	2,0
Kanada	2,4	2,0	2,0	2,9	1,8	1,9
Japonia	-0,7	2,4	1,3	-0,3	0,1	0,0
Eurogunea	1,5	-0,5	0,2	2,7	2,4	1,8
Europar Batasuna	1,5	-0,3	0,5	2,9	2,4	2,0
Alemania	3,0	0,8	1,0	2,3	2,0	1,9
Espainia	0,5	-1,6	-1,4	3,2	2,3	2,2
Frantzia	1,7	0,1	0,4	2,1	2,0	1,7
Herbehereak	1,1	-0,5	0,5	2,3	2,5	2,3
Italia	0,5	-2,2	-0,6	2,8	3,1	2,2
Erresuma Batua	0,8	-0,3	1,3	4,5	2,7	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,9	4,9	3,7	2,6	2,8
Ekialdeko Europa	4,7	2,8	3,3	6,3	6,3	5,5
Amerika Latinoa	4,2	2,9	3,8	7,1	5,9	6,5

Iturria: Consensus Forecast (2012ko iraila).


AEBetako barne produktu gordina, Consensus Forecasten arabera, %2,2 haziko da aurrean eta %2,1 datorren urtean. Estatubatuar ekonomiaren arrisku behinenak beren mugetatik kanpo daude. Izan ere, Txinako eta garatzen ari diren beste herrialdeetako hazkunde tasak horren sendoak ez izateak eta Europako ekonomia batzuk nozitzen ari diren atzeraldi gogorak

ziurgabetasun handia eragin dute etorkizuneko bilakaeraz. AEBetako esportazioen apaltzeak ekonomiaren hazkundera motelduko du. Barneko gertakari batzuek ere, hala nola laster izango diren hauteskundeak eta politika fiskalak, zalantzak gehitzen dizkiote etorkizuneko inguruneari. Hala ere, eta arazo gehiagorik ezean, etengabeko hazkundera espero da, oso bizia izango ez den arren.


BPGaren bilakaera eremuka

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina




Iturria: NDF. 2012ko urriko aurreikuspenak.

Japoniako ekonomiak hazkunde positiboko ibilbideari ekin dio berriro berreraikitze lanei eta esportazioen bultzadari esker. Hala ere, Txinako ekonomiaren apaltzeak eta herrialde horrekin

dituen gatazkek kanpo merkataritzaren hoztea ekar dezakete. Europako atzeraldiak ere lasta bat da Japoniarentzat. Horiek horrela, hazkunde aurreikuspenak 2012rako %2,0aren apur bat gainetik daude eta tasa hori gutxituz joango da 2013an, %1,0aren inguruan kokatu arte.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez, Txina munduko bigarren ekonomia handiena da. Hala ere, Europako krisiaren ondorioz herrialde horren salmentak Europan gutxitu dira. Orobat, industria produkzioaren indizea eta merkataritzako salmentak beheratu dira. Txinako gobernuak interes tasak jaitsi ditu eta pizgarri sorta bat indarrean jarri du, moneta eta zerga politikako neurriak barruan hartzen dituenak. Beste helburu batzuen artean, txinatar ekonomiak arlo pribatuak hazkundera, inbertsioaren eta kontsumoaren bitartez, egiten dion ekarpena areagotu nahi du, kanpo arloarekiko mendetasunak eragiten ari den moteltzea saihesteko. NDFren arabera, ekonomia horrek %7,8ko hazkundera lortuko du 2012an eta %8,2koa datorren urtean, bi tasa horiek azken urteetakoak baino zertxobait txikiagoak direlarik.

Beste aldetik, epe luzean India munduko potentzia ekonomiko handien artean kokatuko dela espero da, azken urteetan bizi duen eraldaketa biziari esker. Izan duen industrializazio bizkorra eta kontsumoko ondasunen eskaria sustatuko duen klase ertaina dira herrialde horretako hazkunderaren oinarriak. Bitartean, etorkizun hurbilean hazkunde tasa garrantzitsuak lortzen jarraituko du, %5,0aren eta %6,0aren artean egongo direnak.

Datozen hiruhilekoetan, begirada guztiak Europara zuzenduta egongo dira oraindik. Munduko ekonomiaren aurreikuspenetan jokatuko duen papera erabakigarria izango da. Eremu horretan ezarri diren politika ekonomikoek ziurgabetasuna gehieneko potentziara igoarazi duen ingurune bat osatu dute. Izan ere, zor subiranoaren krisiari erantzuteko periferiako herrialdeetan ezarri diren hersturako egitasmoek atzeraldira eraman dute Eurogunea eta ekonomia hazkundea okertzeko eta gutxitzeko mehatxua egiten dute.

Banku sistemak dituen kapital arazoak konpontze aldera Euroguneko kideak onartzen ari diren neurriak egokiak izatekotan, emaitzek finantza testuinguruaren egonkortasuna ekarriko lukete. Dena dela, neurri horien eraginak ekonomia errealean ikusi ahal izateko urteak beharko dira. Epe laburrerako, Euroguneko hazkunde aurreikuspenak %-0,5era mugatzen dira 2012. urtean eta zertxobait hobetuko dira 2013an, %0,2an kokatu arte. Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde guztiak bat datoz Europako ekonomiaren bilakaera ezkorra dela iragartzeko orduan.

Espainiako ekonomiarentzat, etorkizuna arriskuz eta ziurgabetasunez beterik dago. Espainiako barne produktu gordina %1,7aren inguruan murriztuko da 2012. urtean, aurreko hiruhilekoan argitaratu ziren aurreikuspenetatik oso hurbil dagoen tasa bat baita. Aurreko txostenen aldean dagoen ezberdintasuna 2013. urterako perspektibetan dago. Izan ere, urte horretarako hazkunde tasa beherantz zuzendu da eta ekonomia nozitzen duen atzeraldiak gehiago iraungo duela iragartzen du. Zehazkiago, 2013rako batez besteko hazkunde tasa %-1,1 da.

Berrikusketa horren atzean barne eskariaren osagaien beherakada handiago bat dago eta beraren ekarpena BPGari nabarmen gutxituko da. Beste aldetik, kanpo arloak ekonomiaren guztizkoari egingo dion ekarpena zertxobait hobetuko da. Cerepredek argitaratzen duen hiruhilekokako bilakaeran espainiar ekonomia 2013ko laugarren hiruhilekotik aurrera hasiko dela tasa positiboak lortzen hautematen da. Iturri beretik, eta hiruhileko arteko tasak aztertuta, ekonomiak hondoa joko duen unea 2012ko azken hilabeteak izango direla ondorioztatu daiteke.

Espainiako lan merkatuaren aldagaiek ekonomia eta gizarte eragileen kezka iraunaraziko dute. Enpleguaren jaitziera oso handia izango da eta Funcaseko panelaren batez besteko zenbatekoa %-3,6 da 2012rako. Datorren urtean, enpleguaren beste %2,0 bat galduko da. Langabezia tasarako egiten diren aurreikuspenak etengabe berrikusten dira gorantz eta aurten %24,4an kokatuko dela espero da, datorren urtean %25,2ra iristeko.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUPEN EKONOMIKOAK (2012ko uztaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoan eta bestean	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-2,0	-1,7	-2,0	-1,5	-10,6	-9,6	-9,1	-3,1	-10,4	-3,7	-7,5	-1,8
BBVA	-1,3	0,6	-2,0	-0,9	-8,0	-5,6	-7,4	-1,0	-9,2	-3,2	-4,6	-2,8
Bankia	-1,5	-0,8	-2,2	-2,1	-5,7	-4,4	-8,0	-1,7	-9,7	-2,7	-6,1	-0,5
CatalunyaCaixa	-1,9	-1,4	-1,5	-1,4	-7,5	-7,2	-8,7	-2,9	-10,0	-5,4	-8,0	1,5
Cemex	-2,1	-2,3	-1,9	-2,6	-4,6	-4,0	-12,0	-8,4	-14,0	-11,0	-10,0	-6,0
CEEM-URJC	-1,9	-1,4	-1,7	-2,5	-7,8	-5,2	-8,2	-5,2	-8,6	-6,8	-7,5	-2,4
CEPREDE-UAM	-1,1	-0,5	-1,5	0,1	-8,6	-8,0	-10,2	-4,1	-12,1	-5,1	-7,2	-2,9
CEOE	-1,6	-0,6	-1,1	-0,8	-7,8	-6,7	-8,3	-3,3	-10,7	-5,3	-5,0	0,4
ESADE	-1,9	---	-1,6	---	-6,7	---	-1,3	---	---	---	---	---
FUNCAS	-1,7	-1,5	-1,8	-2,6	-6,4	-7,2	-9,4	-6,4	-11,7	-8,5	-6,7	-3,1
ICAE-UCM	-1,5	-0,9	-1,8	-1,0	-6,8	-5,2	-9,3	-4,4	-11,1	-5,9	-6,8	-2,4
IEE	-1,8	-0,4	-1,8	-1,0	-6,0	-1,5	-6,8	-3,0	-8,5	-4,1	-5,3	-1,0
IFL-UC3M	-1,5	-0,9	-1,4	-0,8	-7,5	-6,6	-8,9	-5,2	-11,4	-6,8	-6,3	-3,9
Intermoney	-1,8	---	-2,2	---	-3,8	---	-11,4	---	-13,4	---	-10,0	---
La Caixa	-1,5	-0,5	-1,3	-0,7	-6,3	-5,7	-9,2	-3,2	-10,9	-3,5	-7,6	-2,6
Repsol	-1,7	-1,4	-1,3	-1,7	-5,9	-9,9	-10,1	-4,8	-11,6	-6,3	-9,5	-2,1
Santander	-1,6	-1,4	-1,5	-1,7	-6,5	-8,5	-8,3	-6,3	-9,4	-7,4	-6,0	-4,2
Solchaga Recio	-2,1	-1,8	-2,2	-2,5	-7,5	-8,5	-9,8	-6,8	-11,5	-6,8	-8,1	-5,8
Batez bestea	-1,7	-1,1	-1,7	-1,5	-6,9	-6,5	-8,7	-4,4	-10,8	-5,8	-7,2	-2,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-07)	-1,5	-0,5	-1,5	-1,4	-4,8	-8,2	-9,8	-2,0	---	---	---	---
Esp. Bankua (2012-01)	-1,5	0,2	-1,2	-0,5	-6,3	-3,3	-9,2	-2,2	-10,6	-3,1	-7,0	-0,9
E. Batzor. (2012-05)	-1,8	-0,3	-2,2	-1,3	-6,9	-3,5	-7,9	-3,2	-9,1	-3,5	-6,1	-3,0
NDF (2012-07)	-1,7	-1,2	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2012-05)	-1,6	-0,8	-2,9	-1,8	-7,7	-4,5	-9,3	-2,4	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko uztaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-5,3	-3,4	1,9	5,8	-8,9	0,5	1,8	1,1	-4,3	-2,5	25,0	26,6
BBVA	-4,5	-1,8	4,0	8,9	-6,2	1,6	1,9	0,7	-4,3	-2,0	24,6	24,8
Bankia	-4,1	-2,4	1,6	3,5	-7,0	-1,4	1,9	1,9	-4,0	-2,1	24,7	25,8
CatalunyaCaixa	-4,0	-3,4	0,2	3,1	-7,1	-2,0	1,9	1,8	-4,2	-1,8	24,6	26,0
Cemex	-4,7	-4,1	1,8	5,6	-5,5	1,0	1,7	1,5	-4,0	-3,0	24,5	25,5
CEEM-URJC	-4,4	-3,5	3,7	5,2	-4,5	-1,5	2,1	2,4	-3,6	-1,5	24,3	25,2
CEPREDE-UAM	-5,0	-2,5	2,8	4,8	-9,7	-0,6	2,3	2,6	-2,4	-1,1	23,3	23,9
CEOE	-3,8	-2,3	3,1	5,8	-5,0	-0,2	2,0	1,7	-3,5	-1,7	24,2	25,4
ESADE	-2,6	---	4,0	---	1,0	---	1,7	---	-3,0	---	24,0	---
FUNCAS	-4,3	-4,4	2,2	6,0	-6,6	-3,2	2,1	1,8	-4,0	-2,7	24,5	26,1
ICAE-UCM	-4,2	-2,5	1,0	3,4	-6,3	-0,7	1,8	1,6	-3,8	-1,8	24,0	23,0
IEE	-3,9	-1,5	3,0	3,5	-4,0	-0,7	2,0	2,0	-2,5	-1,0	24,1	24,5
IFL-UC3M	---	---	2,5	5,2	-6,3	-0,5	1,9	1,6	---	---	24,3	25,5
Intermoney	-4,4	---	-1,0	---	-9,4	---	1,9	---	-4,0	---	24,7	---
La Caixa	-4,0	-2,2	0,5	4,3	-7,4	-1,2	1,8	1,4	-4,3	-2,4	24,7	25,8
Repsol	-4,1	-4,2	0,4	4,8	-7,9	-4,8	2,0	1,6	-2,0	-1,8	24,5	25,0
Santander	-4,0	-4,0	3,1	3,8	-5,6	-4,0	2,1	2,4	-3,8	-2,0	24,4	25,3
Solchaga Recio	-5,0	-4,8	2,0	5,5	-7,2	-3,8	2,2	1,7	-4,1	-2,1	24,7	25,5
Batez bestea	-4,3	-3,1	2,0	4,9	-6,3	-1,3	2,0	1,7	-3,6	-2,0	24,4	25,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2012-07)	-4,0	-2,8	1,6	6,0	-6,7	-1,5	---	---	-3,7	-0,2	24,6	24,3
Esp. Banku (2012-01)	---	---	3,5	5,9	-4,8	1,2	1,5	1,2	-3,0	-0,7	23,4	23,3
E. Batzor. (2012-05)	-4,4	-2,1	3,2	4,7	-5,6	-0,9	1,9	1,1	-3,7	-1,5	24,4	25,1
NDF (2012-07)	---	---	---	---	---	---	2,1	2,2	---	---	24,9	24,7
ELGE (2012-05)	-5,3	-2,5	3,1	5,7	-9,2	0,8	1,6	2,1	---	---	24,5	25,3

Iturria: Funcas.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2012ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	12.III	12.IV	2012	13.I	13.II	13.III	13.IV	2013
BPG	-2,0	-2,6	-1,6	-3,1	-2,1	-0,7	1,1	-1,2
Kontsumo pribatua	-2,1	-2,3	-2,0	-2,6	-1,6	-1,1	0,0	-1,3
Kontsumo publikoa	-5,2	-8,1	-4,9	-10,0	-10,5	-7,4	-4,0	-8,1
Kap. finkoaren eraketa gordina	-10,6	-9,5	-9,3	-7,9	-5,9	-3,3	0,0	-4,3
- Inbertsioa ekipamenduan	-9,9	-6,0	-7,2	-4,3	-3,3	-0,9	1,6	-1,7
- Inbertsioa landutako aktib.	-13,2	1,2	-2,7	3,7	4,2	3,8	2,5	3,5
- Inbertsioa eraikuntzan	-12,3	-12,4	-11,4	-10,8	-8,1	-5,2	-1,3	-6,5
Barne eskaria	-4,9	-5,3	-4,3	-5,7	-4,8	-2,9	-0,9	-3,6
Esportazioak	2,2	2,5	2,7	3,4	4,0	4,3	4,9	4,2
Inportazioak	-6,4	-5,4	-5,8	-4,0	-3,1	-1,8	-0,6	-2,4

Iturria: CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2012-2013 epealdirako taula makroekonomiko berria argitaratu du. Aurreikuspen berri horietan, goranzko zuzenketa txiki bat egin da eta 2012. urterako batez besteko aldakuntza tasa %-1,2an kokatu da orain. Txosten honetan 2013. urterako hazkunde ekonomikoaren lehen zenbatespena ere argitaratu da, %0,8ko jaitsiera izango delarik. Hiruhilekoka eskaintzen den bilakaerak narriadurako ibilbidea marrazten du 2012ko azken hilabeteak arte eta 2013tik aurrera susperraldia iritsiko da, baina oso ahula izango da. 2013. urteko azken hiruhilekoan jasoko dira urte arteko lehen hazkunde tasa positiboak.

EAEko barne eskaria izango da portaera okerrean erakutsiko duen agregatua. Hazkundeari egingo dion ekarpena negatiboa izango da aurreikusten den epealdi osoan zehar. Barne eskariaren ahultasunak eta geldotasunak susperraldi txiki bat ezagutuko du 2013ko bigarren sei hilekoan, baina ez da ekarpen positibo bat egitera iritsiko. Aitzitik, kanpo eskaria izango da EAEko ekonomiaren osagairik dinamikoa, esportazioak inportazioak baino gehiago haziko direlako. Ingurune herrialdeek biziko duten egoera erlatiboki hobeak EAEko salmentak areagotuko ditu atzerrian.

Barne eskariaren barruan, osagai guztiek hazkunde tasa negatiboak jasoko dituzte 2012-2013 biurtekoan. Hain zuzen ere, familien gastua kontsumoan %1,1 gutxituko da 2012an eta %0,9, berriz, datorren urtean. Lan merkatuaren egoeraz dauden igurikimen negatiboak eta ezarri diren hersturako neurriei lotuta dagoen erosteko ahalmenaren galera izango dira familien gastua mugatuko duten elementuak. Beste aldetik, administrazio publikoek ere beren kontsumoa murriztuko dute defizitari dagokionez adostu duten helburua lortu ahal izateko. Barne eskariaren beste osagai nagusiak, hots, kapital eraketa gordinak, narriadura garrantzitsua nozitu du eta ez du hazkunde tasa positiborik aurkeztuko epe laburrean. Suseperraldia higiezin eta finantza alorretako desorekak zuzentzen direnean iritsiko dira. Dena dela, enpresariengatik igurikimenak ez dira oso onak barne eskariaren ahultasuneko testuinguru batean.

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK (2012ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012.III	2012.IV	2012	2013.I	2013.II	2013.III	2013.IV	2013.
BPG	-1,6	-2,1	-1,2	-1,9	-1,4	-0,4	0,5	-0,8
Azken kontsumoa	-2,0	-1,8	-1,3	-1,6	-1,4	-0,7	-0,3	-1,0
Kontsumo pribatua	-1,5	-1,5	-1,1	-1,4	-1,3	-0,7	-0,3	-0,9
Kontsumo publikoa	-3,6	-3,0	-2,2	-2,2	-1,8	-1,0	0,0	-1,2
Kapital eraketa gordinak	-5,5	-4,9	-4,8	-4,7	-4,2	-3,1	-1,9	-3,4
Barne eskariaren ekarpena	-2,8	-2,7	-2,2	-2,6	-2,1	-1,3	-0,7	-1,7
Kanpo saldoaren ekarpena	1,2	0,6	1,0	0,7	0,6	0,9	1,2	0,9
Lehen arloa	9,1	-20,2	4,9	-22,6	-12,9	9,5	25,9	0,0
Industria	-3,0	-3,5	-2,5	-3,3	-2,7	-0,7	1,6	-1,3
Eraikuntza	-7,0	-6,8	-6,5	-6,2	-5,0	-3,8	-3,0	-4,5
Zerbitzuak	-0,6	-0,9	-0,3	-0,9	-0,6	0,0	0,4	-0,3
Balio erantsi gordinak	-1,7	-2,2	-1,4	-2,0	-1,6	-0,5	0,5	-0,9
Ekizkinen g. zerga garbiak	-0,6	-0,7	-0,2	-0,7	-0,4	0,1	0,5	-0,1
BPGren deflatoia	1,3	1,5	1,3	1,5	1,4	1,4	1,3	1,4
Enplegua	-2,4	-2,5	-2,4	-2,4	-1,9	-1,5	-0,4	-1,6
Langabezia tasa	12,6	12,6	12,3	12,8	12,9	13,0	13,0	12,9


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsi gordinak bizkor jaitsiko da 2012ko amaiera arte. 2013ko lehen hilekoetan, narriadura hori leundu da eta zertxobait suspertuko da, urtea hazkunde tasa positibo baina txiki batekin amaitzeko. Lehen arloak izan ezik, jardura adar guztiek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasoko dituzte urteko batez bestean. Barneko atzeraldiak eta

merkataritzako bazkide batzuen ahultasunak EAEko industriaren jaitsiera eragingo dute, %2,5 beheratuko baita 2012an eta %1,3, berriz, datorren urtean. Eraikuntza da, alde handiz, bilakaera okerrenea erakutsiko duen sektorea. 2008ko hastapenetik, etengabeak izan dira hazkunde negatiboko tasak arlo horretan eta aurreikuspenaren arabera horrela jarraituko du epe laburrean eta ertainean ere. Hain zuzen ere, 2012. urterako, %6,5 jaitsiko dela aurreikusten da eta datorren urtean, berriz, beherakada %4,5 izango da. Azkenik, zerbitzuek bilakaera egonkor samar baina narriadura txiki batekin jarraituko dute eta 2013ko azken seihilekoan hobekuntza neurritsua lortuko dute. Kontuan hartu den epealdi osoan %-0,3ko aldakuntza tasa izango du batez beste.

EAEko BPGaren eta enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaren aldagaiak ere beherantz zuzendu dira. Izan ere, enplegua aurreko hiruhilekoan espero zena baino gehiago jaitsiko da oraingo aurreikuspenean. Galduko diren lanpostuen kopurua 23.000 ingurukoa izango da 2012an eta 15.000 datorren urtean. Kopuru horiek, hurrenez hurren, %-2,4 eta %-1,6ko galerak islatzen dituzte 2012rako eta 2013rako. Langabezia tasarentzat egin diren perspektibak ere zuzendu dira lehenago argitaratu ziren datuetatik eta orain %12,3an kokatu dira 2012. urterako. Datorren urterako, berriz, zerbait gorako kokatuko da, %12,9an urteko batez bestean.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak oraingo eszenategi makroekonomikoa egiteko hainbat suposamendu egin ditu munduko ekonomiaren

hazkundeaz, deflatoreei buruz, Europako Banku Zentralak ezarriko duen interes tasaz eta euroak dolarraren aldean 2012an eta 2013an izango duen truke tasaz.

Europako Banku Zentralaren iragarkien ondoren, interes tasek epe laburrean orain dauden mailetan jarraituko dutela espero da. Moneta agintariaren ustez, interes tasen oraingo maila egokiena da Europako ekonomien oraingo eta etorkizuneko egoerarentzat.

Europako zor subiranoaren krisiak ekarri dituen tentsioek euroaren beheranzko norabideak jarraituko duela pentsarazten dute eta aurreikuspen honetan truke tasa 1,27 dolarretan kokatu da 2012. urterako. Datorren urterako, berriz, balio galerak aurrera segituko duela espero da eta 1,23 dolar ordainduko dira euro baten truke.